

2022

2. hiruhilekoa

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN  
SAILA  
*Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA  
Y HACIENDA  
*Dirección de Economía y Planificación*



## EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA .....	3
EKONOMIAREN INGURUNEA .....	5
EAE-KO EKONOMIA .....	9
Ekoizpena eta enplegua .....	9
Barne eta kanpo eskaria .....	14
Prezioak, soldatak eta kostuak .....	21
Arlo publikoa .....	25
Arlo finantzarioa .....	27
Aurreikuspenak .....	34

## Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I) .....	5
Munduko ekonomia. BPGa (II) .....	7
Enpleguaren bilakaera .....	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera .....	32
2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (I) .....	39
2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (II) .....	41

## Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak .....	9
Jardueraren adierazleak .....	10
Eskariaren aldagaiak .....	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak .....	15
Esportazioen helmuga .....	17
Inportazioen jatorria .....	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa .....	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea .....	23
Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak .....	24

Lan kostuak .....	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-maiatza) .....	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I) .....	29
Adierazle monetario eta finantzarioak (II) .....	30
Kreditu eta gordailuak.....	33
Ekonomia aurreikuspenak.....	35
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2022ko ekaina) .....	36
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2022ko ekaina).....	38

## LABURPENA

Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazka armatuak munduko egoera ekonomikoa baldintzatzen jarraitzen du, eta eragin handia du prezioen bilakaeran eta lehengaien eta produktu energetikoen horniduran. Hala eta guztiz ere, susperraldi ekonomikoaren prozesuak aurrera jarraitzen du garatutako ekonomietan, 2020aren hasieran Covid-19aren hedapenak eragin zuen paralisaren ondoren. EAEn, barne produktu gordin (BPG) erreala %5,7 hazi zen urte arteko tasan aurtengo lehen hiruhilekoan, hau da, 2021eko laugarren hiruhilekoan baino puntu bat gehiago, eta hazkunde erritmoa bizkortu egin da bi hiruhilekotan. Goranzko joera hori bera erakusten du eurogune osoak, 2022aren hasieran %5,4ko hazkundea izan baitzuen, aurreko bi balioen gainetik ere.

Pandemiak eragindako atzeraldiak kontsumoa eta inbertsioa geldiarazi zituen, orain azaleratzen ari den ondasun jakin batzuen eskaria atzeratuz. Eskariaren indar handi horrek industriaren jarduera bultzatu du, eta hazkunde erritmo oso handia erregistratu du sektoreak. Zehazki, haren balio erantsiak urte arteko %6,5 egin zuen gora lehen hiruhilekoan, eta sektorearen azken informazioaren arabera, hurrengo hilabeteetan ere joera hedakorrari eutsi dio, kostuen igoerak eta ondasun jakin batzuen hornidurarik eza gorabehera.

Zerbitzuek ere oso bilakaera hedakorra erakutsi dute, pandemia geldiarazteko hartu ziren mugikortasuneko murrizketen ezabapenak lagunduta. Horiek horrela, sektore osoaren balio erantsia %6,0 hazi zen aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko datua baino sei hamarren gehiago. Sektorea osatzen duten hiru jarduera taldeetatik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak lortu zuen aldakuntza tasarik handiena (%11,0), neurri batean jarduera baxuko une batekin alderatzen delako eta beste neurrian pandemian erabilgarri egon ez ziren zerbitzuen eskari handia dagoelako orain. Administrazio publikoari lotutako zerbitzuek, birusaren aurkako borrokan inoiz ez baitziren murriztu, oso erritmo egonkorra dute eta %2,9 hazi ziren, 2021ean baino hamarren gutxi batzuk gehiago. Azkenik, gainerako zerbitzuek (%4,8) aurreko datuak hobetu zituzten.

Eraikuntzak ahultasun une bat erakutsi zuen 2021eko azken hiruhilekoan, bere balio erantsiaren urte arteko hazkunde tasa %0,5 baino ez baitzen handitu, ekonomiaren batez bestekotik urrun geratu zelarik. Lehengaien kostuen igoera handiak eta langilerik ezak kalte egin zioten sektorearen jarduerari. Hala eta guztiz ere, 2022aren hasieran, sektorea gai izan da hazkunde erritmoa %1,9raino handitzeko, beste sektoreen oso azpitik oraindik ere, baina goranzko joera argian, obra zibilak emandako bultzadari esker, nahiz eta higiezinaren merkatuak ere suspertzea erakusten duen.

Eskariaren aldetik nabarmendu beharreko ezaugarria kanpo saldoak lehen hiruhilekoan BPGaren hazkundeari egin zion aparteko ekarpena da. Oro har, kanpo saldoaren ekarpenak txikiak eta zeinu aldakorrekoak izaten dira. Hala ere, garrantzia hartzen dute suspertzeko prozesuetan, zeinetan esportazioek zeregin garrantzitsua jokatzen baitute jardueraren dinamizatzaille gisa. Hori horrela, aurtengo hasieran ekarpen hori 2,7 puntu ingurukoa izan da, hau da, barne eskariak egindakoaren ia berdina. Halaber, gutxienez hogeita bost urtean erregistratu den altuena da. Esportazio errealak urte arteko %10etik gora hazi ziren eta inportazioak, berriz, %8,9.

Barne eskariak goranzko joera neurritsua izan zuen, %2,9koa, aurreko bi aldietan erakutsi zuenaren oso antzekoa. Kontsumo pribatuak %3,1eko hazkunde iraunkorra izan zuen, eta hazkunde hori ekonomia osoarena baino txikiagoa da oraindik. Energiaren garestitzeak (elektrizitatea, erregaiak eta gasa) sortutako ziurgabetasunak agregatu horren susperraldia geldiarazi du. Inbertsioaren kasuan (%3,9), kostuen igoerak, hornidurarik ezak eta zalantza ezak beteriko etorkizunak eragotzi dute aldagai horrek bilakaera biziagoa lortzea.

Prezioen igoera da eragile ekonomikoen kezka iturri nagusia. KPIari dagokionez, urte arteko aldakuntza tasa %9,5era igo zen martxoan, eta, maiatzean %8,3ra jaitsi bazen ere, aldagai horren kontrola ez da azkarra izango, azpiko inflazioak markatzen duen bilakaeraren arabera, jadanik %4,7an kokatu baita.

Lan merkatuak oso irudi positiboa eskaintzen du,aldi horretan enplegu sorrera handia eta langabeziaren pixkanakako jaitsiera erregistratu baititu. Hain zuzen ere, lanaldi osoko lanpostuei dagokionez, urtearen hasieran igoera %5,0 izan zen, hau da, 46.000 enplegu garbi inguru sortu ziren. Bestalde, langabezia tasa %9,1era murriztu zen, duela urtebete baino ia bi puntu beherago.


Une ekonomikoaren inguruko ziurgabetasuna dela eta, zuhertasunez hartu behar dira ezagutzera ematen diren aurreikuspenak. Inguruneari dagokionez, hazkunde tasak %3,0 baino pixka bat handiagoak izango dira aurtengo euroaren eremuan eta %4,4 handiagoa, berriz, Espainian. Testuinguru horretan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspen berriek ez dute aldaketa nabarmenik eskaintzen aurrekoekin alderatuta, eta BPG errealarentzat espero den hazkunde tasa %4,5ean mantentzen dute; BPG nominala, berriz, %10,0ra iritsiko da, inflazioaren igoera handiaren ondorioz. Horrela, BPGaren deflatoea %5,2ra igo da egungo aurreikuspenean, martxoan egindako aurreikuspena baino puntu bat gorago. Prezioen igoerarik handiena aurtengo erdiko hiruhilekoetan gertatuko da, eta, ondoren, moteltze txiki bat hasiko da. Enpleguari dagokionez, sortutako lanpostuen hazkundera %3,2 da orain, eta urteko batez besteko langabezia tasa egungo balioaren azpitik egongo da. Zehazkiago, %8,8 izango dela aurreikusten da.

## EKONOMIAREN INGURUNEA


2022ko lehen asteetan, igurikimenez seinalatzen zuten pandemiaren osteko susperraldi ekonomiko globalak jarraipena izango zuela, txertaketa prozesuko aurrerapenen eta politika ekonomikoen babesak lagunduta. Urte hasierako kezka nagusia inflazioaren gorakada zen, 2021eko amaieran hasi eta 2022ko hasieran areagotu zena. Inflazioaren hazkunde horren arrazoiak hainbat izan ziren. Alde batetik, pandemia geldiarazteko murrizketak kendu ondoren eskaria azkar berriro aktibatu izanak ekoizpen kate globalen gainkarga eragin zuen, eta sargaien hornidura arazoak eragin zituen sektore batzuetan, hala nola erdieroaleetan, plastikoan eta zurean. Horri gehitu behar zaie salgaien garraioan eten handiak sortu ziren (*botila lepo* delakoak). Beste aldetik, lehengaien prezioek gorakada handia izan zuten, batez ere energiaren salneurriak.

### Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak

ELGE



Txina



Iturria: ELGE.

Hala eta guztiz ere, otsailaren 24an Errusiak Ukraina inbaditu zuen eta horrek nazioarteko panorama osorik aldatu zuen. Krisi humanitarioa alde batera utzita, nahiz eta hura garrantzitsua izan, gerra ekintzaren kalte fisiko eta moraletatik eta desplazatuen eta erbesteratuen kopuru izugarritik eratorritako biktima ugari baitago, lehen ondorioetako bat izan zen energia prezioen tentsioak izugarri areagotu zirela, elikagaien prezioetara hedatu eta hornikuntza kateak aldatu zirela.

Dena dela, gerrak jarduera ekonomikoan beheranzko eragina izango zuela eta prezioen bilakaeran, ordea, goranzko eragina izango zuela aurreikusten zen. Ondorio horiek munduko ekonomia osoan hautemango lirateke, baina European indar handiagoa izango lukete beste eskualde globalekin alderatuta, gerran dauden herrialdeekin lotura handiagoa duelako. Zehazkiago adierazita, Errusiak euroaren eremuan kontsumitutako gasaren heren bat eta petrolioaren bosten bat hornitzen du.

Hala eta guztiz ere, orain arte argitaratu diren lehen datuek ez dute ia inolako eraginik hauteman BPGaren bilakaeran, bai, ordea, inflazioan. Zehatzago esanda, Txinako BPG %4,8 hazi zen aurtengo lehen hiruhilekoan, eta goranzko norabidea berreskuratu zuen. Hiruhilekoaren balantzea herrialde horretan positiboa izan bazen ere, jardueraren martxoko eta apirileko datuek erakusten dute jarduera erritmoa nabarmen ahuldu dela. Apirileko PMI konposatua 37,2ra jaitsi zen, serie osoko bigarren erregistrorik txarrena baita, 2020ko otsailean pandemia lehertu zenean jasotako 27,5aren atzetik. Omikron aldaeraren hedatzeak eta Covid zero politikaz zorroztari eusteak portuetako itxaronaldiak hirukoiztu egin dira, eta osasun arloko atzerapenek eta baldintzek trabak sortu dituzte munduko merkataritzarako funtsezkoak diren azpiegitura horien sarreran. Itxura guztien arabera, atzerapenak udako hilabeteetara ere luzatuko dira, eta, beraz, Asiako kate globalaren erdigunean dagoen ahultasun hori dagoeneko oso tentsionatuta dauden eta Europako gatazkak ere eragiten dien hornikuntza kate globaletara zabalduko da.

Herrialde aurreratuak %4,2 hazi ziren aurtengo lehen hiru hilabeteetan, hots, 2021eko amaieran baino zazpi hamarren gutxiago, eta haien inflazioa %9,2ra igo zen apirilean, 1988ko urritik blokean jaso den prezio igoerarik handiena baita. BPGaren gorakada horrek erritmoaren galera txiki bat erakutsi zuen, neurri handi batean, AEBek izandako dinamismo txikiagoaren ondorioz. Hain zuzen ere, ekonomia estatubatuarra %3,5 areagotu zen, aurreko erregistroa baino bi puntu gutxiago. Hala ere, moteltze hori tentuz interpretatu behar da, hazkundearen eragile nagusiek, hau da, kontsumoak eta inbertsioak, erritmo bizian gora egiten jarraitu baitzuten. Halaber, lan merkatuak zenbaki positiboak eskaintzen jarraitu zuen. AEBetan duela hilabete batzuetatik dinamismo handia hautematen ari da, eta, hain zuzen ere, eskulan faltaren arazoek hor jarraitzen dute, langabezia tasa minimo historikoetatik gertu mantentzen baita. Zehazki, apirilean %3,6an egonkortu zen. Hala ere, indargune horiek berek, batez ere barne eskari handiak, azpiko inflazio presio handiagoak eta goiztiarragoak eragin dituzte herrialde honetan. Maiatzean, KPIa %8,6an kokatu zen, eta azpiko inflazioa, berriz, %6,0ra igo zen, biak ala biak berrogei urteko altuenetakoak direlarik.


Japoniak, berriz, energiaren eta beste lehengai batzuen inportazioen mendekotasun handia duen herrialdea baita, garestituta ikusi zituen bere inportazioen kostuak, ez soilik prezioen gorakada globalaren ondorioz, baita yenaren debaluazio handiagatik ere, erosketetan kalte handia egiten ari baita. Izan ere, prezioen efektu horrek inportazioen hazkunde handia ekarri




du, esportazioen gaitetik, eta horrek kanpo sektoreak jardura ekonomikoari hainbat hamarren kentzea ekarri du. Inbertsioa ere murriztu egin zen yenaren beherakada horren ondorioz, eta kontsumo pribatuak bakarrik bultzada eman zion hazkundeari. Murrizketen amaierak, Txinak ezarritakoekin batera luzeenak eta zorrotzenak, %2,1 igo zuen kontsumo geroratu, gainerako agregatuen bilakaera ahula konpentsatuz. Aurreko guztiaren ondorioz, Japoniako jardura ekonomikoa %0,7 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gehiago. Merkataritzako bazkide nagusietan ez bezala, inflazioaren hazkundera ez da, oraingoz, kezka Japoniako gobernuarentzat. Apirilean, prezioak %2,4 igo ziren, eta zazpi urtean lehen aldiz gaititu zuten Japoniako Bankuaren inflazio helmuga.

### Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Europar Batasuna 27



Iturria: Eurostat eta BEA.

Europar Batasunean, gatazka armatuaren eragina bereziki kaltetzen duen eremua baita, jardura ekonomikoa are gehiago hazi zen eta, oraingoz, Errusiak Ukrainari egindako inbasioaren ondorioz aurreikusitako moteltzea saihestu zuen. Zehatz-mehatz adierazita, Europar Batasuna %5,6 handitu zen, euroaren eremua baino bi hamarren gehiago. Lan merkatuak langabezia tasa %6,2an egonkoritu du otsailetik, eta historikoki maila baxua izan du Europako estandarretarako. Oraingoz, bere kezka iturri bakarra prezioen bilakaera da. Izan ere, maiatzean, eurogunean %8,1 hazi ziren prezioak, eta, beraz, diru komuna sortu zenetik, eskualdean gehien garestitu diren unea da oraingoa.

Azterketa xeheago batean hauteman daitekeenez, koiuntura ekonomiko honetan Alemania da Europar Batasuneko herrialderik kalteberena, balio kateetan integrazio eta zentraltasun handiagoa duelako, manufakturek pisu handia dutelako ekonomia horretan, batez ere

automobilgintzan, eta lehengaiak eta bitarteko ondasunak inportatzeko mendekotasun handia duelako ekoizpen prozesuetan. Hala ere, Europako lehen ekonomiak ezustean harrapatu zuen BPGaren %3,8ko gorakada batekin, eta datu horrek bi puntuko azelerazioa ekarri zuen aurreko erregistroarekin alderatuta. Zehatzago esanda, kontsumo pribatuak pandemia agertu baino lehenagotik jaso ez zuen dinamismo bizia erakutsi zuen, eta, aldi berean, inbertsioak gora egin zuen eta hazkunde positiboak berreskuratu zituen. Alderdi negatiboa inflazioaren eskutik etorri zen, maiatzean %7,9ra igo baitzen, 70eko hamarkadaren hasierako petrolioaren krisitik izan duen mailarik altuenera.

Frantzian, bilakaera zertxobait desberdina izan zen. BPGaren hazkundeak indartsu jarraitu bazuen ere, beheranzko joera erakutsi zuen (%4,5 hazi zen, 2021eko laugarren hiruhilekoan %4,9 handitu eta gero). Herrialde horretan, bai kontsumo pribatuak bai kapital eraketa gordinak bizitasuna galdu zuten, ziurrenik inflazioaren presioek enpresa eta familia frantziarretan izan zuten inpaktuagatik. Izan ere, Frantziako urte arteko inflazioa %5,2ra igo zen maiatzean, hau da, 1985eko azarotik inoiz izan duen tasarik altuena. Italiak, bestalde, jarduera ekonomiko egonkor eta sendoaren mailari eutsi zion, BPGaren %6,2ko hazkunde tasarekin, aurreko erregistrotik bi hamarren beherago bakarrik. Kontsumo pribatuaren indarra (%7,1) eta inbertsioarena (%12,9) nabarmendu ziren. Oraingoan, inflazioaren presioetatik at daude, eta maiatzeko KPIa %6,9ra igo zen. Espainiako ekonomiak ere osasun ona izan zuen. Jarduera ekonomikoa berriro bizkortu zen eta %6,4an kokatu zen, barneko nahiz kanpoko eskariaren ekarpenei esker; maiatzeko inflazioa, berriz, %8,7ra iritsi zen.

Jarduera ekonomikoak orain arte erakutsi duen erresistentzia eta erresilientzia gorabehera, eta lan merkatuaren zifra onak gorabehera, aurreikuspen ekonomikoak okertzen joan dira azken hilabeteetan. Izan ere, itxura guztien arabera, Ukrainako gerrak izango duen eragina urteko bigarren hiruhilekoan nabariagoa izango da. Ildo horretan, apirileko eta maiatzeko konfiantza adierazleak, espero zena baino hobeto egon diren arren, eragile ekonomikoen igurikimenek okerrera egin dutela erakusten hasi dira argi eta garbi. Zehazki, inflazioak eragina izan du familiengan; industrian, berriz, lehengaien prezio altuei eta botila lepoen iraunkortasunari egiten zaie aurre. Halaber, azken datuen arabera, energiaren prezioen igoera azkar kutsatzen ari da gainerako kontsumo saskira, eta horrek presio handiagoak eragingo ditu Europako Banku Zentralaren (EBZ) diru politika normalizatzeko.

Edonola ere, ekonomiaren bilakaera, funtsean, gatazka belikoa garatuko den moduaren, egungo zigorren eraginaren eta etorkizunean har daitezkeen beste neurri batzuen arabera izango da. Inflazioa nabarmen handitu da eta datozen hilabeteetan ere handia izaten jarraituko du, batez ere energiaren kostuak nabarmen garestitu direlako. Horregatik guztiagatik, ziurgabetasunak handia izaten jarraitzen du, eta agertoki ekonomiko guztiek oso irekita jarraitzen dute.

## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

2022ko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomia, Europako ekonomien multzoa bezala, BPGaren hazkunde erritmoa bizkortzeko gai izan zen, oztopoz betetako testuinguru batean; besteak beste, Ukrainako gerra, prezioen igoera handia, moneta politikaren norabide aldaketa, pandemiaren berragerpena Txinan, horniduren etorreraren atzerapena eta ziurgabetasunaren gorakada. Hala eta guztiz ere, EAEko ekonomia %5,7 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gehiago. Horri esker, lortutako ekoizpen maila 2019ko laugarren hiruhilekoan, pandemia hasi aurretik, erregistratutakoa baino hiru puntu txikiagoa da soilik, hain zuzen ere. Bestalde, euroaren eremua %5,4 hazi zen urte hasieran eta Covid-19a iritsi aurreko maila berreskuratu zuen.

#### ESKAITZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
<b>BPG erreala</b>	<b>-9,9</b>	<b>5,6</b>	<b>-2,9</b>	<b>18,6</b>	<b>3,9</b>	<b>4,7</b>	<b>5,7</b>
Nekazaritza eta arrantza	-15,0	1,8	-7,1	7,8	4,6	2,6	-1,8
Industria eta energia	-11,2	8,5	-1,1	30,2	5,5	4,3	6,5
- Manufakturen industria	-11,6	9,2	-0,7	33,1	5,9	3,8	5,9
Eraikuntza	-8,2	2,4	-2,4	11,5	1,3	0,5	1,9
Zerbitzuak	-9,0	5,0	-3,5	15,5	4,0	5,4	6,0
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-18,1	8,9	-5,5	26,1	6,1	12,2	11,0
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	1,6	2,5	1,6	3,1	2,6	2,6	2,9
- Gainontzeko zerbitzuak	-8,6	4,1	-5,0	17,3	3,5	3,1	4,8
Balio erantsi gordina	-9,5	5,6	-2,9	18,4	4,2	4,8	5,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-13,6	5,3	-3,0	20,4	1,9	3,7	3,9

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriak erakusten duen une ona hautematen da, aurreko aldirian zertxobait geldiarazi zuten hornidura arazoetatik partzialki suspertuta. Horiek horrela, aurtengo lehen hiruhilekoan bere balio erantsia %6,5 handitu da, aurreko bi balioen oso gaineratik kokatu delarik. Sektore horrek lortu egin du jadanik pandemiaren aurreko mailatik gora egotea, nahiz

eta epe luzeagoko ikuspegi batetik oraindik hiru puntu beherago dagoen 2008ko finantza krisiaren aurreko hiruhilekoetan lortu zuen maximo historikotik.

Industriak erakusten duen sendotasuna, ondasunen eskari sendo batek bultzatuta, orokorra da eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, produktu talde guztietan hautematen da. Izan ere, ekoizpenari dagokionez, ekipamendurako ondasunen bilakaera ona nabarmentzekoa da, aurtengo lehen lau hilabeteetan bi zenbakiko hazkundera izan baitute, batez beste %14,1eko gehikuntzarekin. Aipagarria da, halaber, energiaren ekoizpenak izan duen bultzada, nahiz eta adar horrek gorabehera handiak izan ohi dituen hilabete batetik bestera, are gehiago energia merkatu globala estresatuta dagoen testuinguru batean, gatazka armatuak eta erregai fosilen munduko hornitzaile handienetako bat den Errusiaren aurka hartutako neurriek eragindako inguruabarren ondorioz. Bestalde, kontsumorako ondasunen ekoizpena %7,0 hazi zen hilabete horietan, eta bitarteko ondasunetan (%2,0) baino ez dago nolabaiteko ahultasuna, lehengaien merkatuko tentsioagatik.

## JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
<b>Industria</b>							
Industria produkzioaren indizea	-13,4	10,5	-0,1	32,2	6,8	6,5	8,0
Negozio zifren indizea	-16,2	18,2	4,2	42,2	16,1	15,6	21,4
Industria giroaren indizea	-19,5	-10,2	-3,5	-10,1	-16,4	-10,7	6,5
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,2	-0,5	-3,4	-0,4	1,2	0,7	1,5
<b>Eraikuntza</b>							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-8,1	7,8	8,6	17,2	4,5	2,5	7,2
Etxebizitza berriak eraikit. Oniritziak	-6,5	39,6	72,6	48,9	36,6	9,9	0,2
Etxebizitzen salerosketak	-13,6	17,5	8,0	47,2	14,9	6,9	16,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,9	1,1	-1,0	3,3	1,0	1,1	1,9
<b>Zerbitzuak</b>							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	-71,6	57,5	-83,2	2.440,3	118,5	278,5	382,5
Hoteletan igarotako gaualdiak	-61,5	73,4	-59,3	422,1	81,4	216,8	176,5
Negozio zifren indizea	-12,4	15,4	1,0	33,2	12,8	17,5	18,4
Zerbitzuen koiuntura indizea	-7,4	6,0	1,9	20,0	1,7	2,4	5,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,8	1,2	-1,5	2,2	2,0	2,3	2,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren ekoizpenari buruzko datuetatik ondorioztatzen den abagune ona sektoreko enpresen iritziekin osatzen da. Iritzi horiek baikortasun handia iradokitzen dute, baita egungo industriarentzat zaila den testuinguru batean ere, kostuen igoera handia eta ekoizpenean botila lepoak agertuta. Hala, 2022ko lehen bost hilabeteetan, industria giroaren indizeak 2007tik izandako mailarik handienak erregistratu ditu. Alde batetik, eskaera zorroari buruzko erantzunak oso positiboak dira, baita ekoizpenaren etorkizuneko joerari buruzkoak ere. Orobat, saldu gabeko stockak nahiko baxuak dira. Bestalde, enpleguari buruzko iritziek lanpostuen sorrera garbia aurreikusten dute.

Eraikuntzak zalantza betetako urte amaiera izan zuen, eta sektorearen balio erantsia %0,5 baino ez zen handitu, lehengaien garestitze azkarraren eta lan merkatuak bizi zituen tentsioen ondorioz. Hala eta guztiz ere, urte honen hasieran dinamismoaren zati bat berreskuratu du, eta urte arteko %1,9ko igoera eskuratu du. Tasa hori oraindik apala da, ekonomia osoak lortutakoarekin alderatuz gero, baina kontuan hartu behar da erabiltzen dituzten lehengaien prezioak %10 baino gehiago garestitu eta eskulana %5,8 igo zen une batean lortu dela. Eraikuntzaren koiuntura indizearen arabera, sektorearen susperraldia obra zibilaren eskutik etorri da, %20,9 hazi baitzen jarduera hori aldi horretan, eta eraikuntzak, berriz, askoz gehikuntza txikiagoa izan zuen, baina baita esanguratsua ere (%5,5). Azken horri lotuta, lehen hiruhilekoan etxebizitzaren salmentak oso erritmo handian egin zuen gora (%16,6), eta hori ez da 2021eko batez bestekoaren oso desberdina (%17,5).

Zerbitzuen hazkundera ekonomiaren batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa izan zen 2021ean, pandemiaren zabalpena geldiarazteko hartu ziren murrizketek baldintzatuta, batez ere mugikortasunarekin eta lokalen edukierarekin lotutakoek. Hala ere, neurri horiek kendu ahala, sektoreak bere dinamismoaren zati handi bat berreskuratu du, eta batez bestekoaren zertxobait gainera ere jarri da. Zehazki, 2022ko lehen hiruhilekoan, zerbitzuen balio erantsia %6,0 hazi zen, aurreko datua baino sei hamarren gehiago.


Kasurik azpimarragarriena merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen jarduera multzoari dagokio, bi zenbakiko bigarren hazkundera eskuratu baitzuen, laugarren hiruhilekoan lortutako %12,2aren ondoren. Oraingo kasu honetan, aldakuntza tasa %11,0 izan da, eta horrek ia bikoiztu egiten du ekonomiaren batez besteko bultzada. Bi urteko murrizketen ondoren, jatetxei eta turismoari lotutako zerbitzuen eskaria oso handia da. Bestalde, administrazio publikoarekin, hezkuntzarekin, osasunarekin eta gizarte zerbitzuekin lotutako jarduerak joera hedakor apalagoa izan zuten, baina oraindik esanguratsua (%2,9). Talde hori da, bere ezaugarriengatik, pandemian tasa negatiboetan sartu ez zen bakarra. Azkenik, gainerako zerbitzuek ere hazkunde nabarmena lortu zuten (%4,8), aurreko bi hiruhilekoetako emaitzak hobetuz.

Bigarren hiruhilekoari buruz dagoen informazioaren arabera, turismoarekin lotutako jarduerak aurreko hilabeteetako bilakaera onari eusten diote, Ukrainako gerrak eta inflazio handiak, bereziki erregaien garestitzeak, sortutako zailtasunak gorabehera. Horiek horrela, hotel establezimenduetako gaualdiak hirukoiztu egin ziren apirilean (535.000), aurreko urteko emaitzarekin alderatuta. Era berean, pertsonen aireko trafikoa zazpi aldiz handitu zen (490.000 pertsona), eta pandemia baino lehen EAEko aireportuetan ohikoak ziren zifretara hurbiltzen joan zen (600.000 desplazamendu inguru).


BPGaren dinamismo handia berehala aldatu zen lan merkatura, 2022aren hasieran oso bilakaera positiboa izan baitzuen. Hain zuzen ere, lehen hiruhilekoan, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %5,0 hazi zen urte arteko tasan, eta erritmo gero eta bizkorragoa erakutsi zuen aurreko bi hiruhilekoetako tasekin alderatuta. Erritmo horren ondorioz, 2021eko aldi berean behar izan zirenak baino 46.000 lanpostu gehiago behar izan dira aurtengo lehen hiruhilekoan. Pandemia hasi aurreko enplegu mailarekin alderatuta, oraingo zifrak adierazten du pandemian galdutako enplegu guztiaren %96,2 jadanik berreskuratu dela, eta 6.500 enplegu baino gutxiago berreskuratu behar direla 2019ko laugarren hiruhilekoko egoerara itzultzeko, nahiz eta bidea luzeagoa den EAEko ekonomiak 2008ko Atzeraldi Handia baino lehen zeuzkan milioi bat lanpostu haiek berreskuratu nahi badira. Lanpostu berri guztietatik, gehienak (39.000 inguru) zerbitzu jardueretan kontzentratu ziren, eta pandemiaren ondorioz galdutako gutzia berreskuratu dute eta bere maximo historikotik gertu dago. Gainerakoa industrian sortutako 5.000tan eta eraikuntzan sortutako 2.000etan banatzen da.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

BJA inkestak kontu ekonomikoetako lan merkatuari buruzko informazioa osatzen du, eta kalkulatu du enplegua duten pertsonen kopurua %3,1 hazi zela lehen hiruhilekoan urte batetik bestera. Tasa horren eta lanaldi osoko lanpostuetan lehen aipatutakoaren arteko aldea, funtsean, lanaldi denboraren aldaketak eta aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteetan (ABEEE) dauden pertsonen kopuruak azaltzen dute. Legezko figura horri dagokionez, duela urtebete 30.000 pertsona baino gehiago ziren, eta 2022ko lehen hiruhilekoan 5.000 baino gutxiago. Are gehiago, maiatzean, eskuragarri dagoen azken hilabetean, 1.383 pertsona baino ez ziren geratzen ABEEE baten eraginpean.

Sexuaren araberako banakapenak adierazten du enpleguaren sorrerak, azken hiru urteetan ez bezala, zertxobait gehiago lagundu ziela gizonen (%3,6) emakumeen baino (%2,6). Hala eta guztiz ere, emakumeek enplegu osoaren %47,7 bereganatu dute, eta hiruhileko horretako okupazio tasa %46,9ra iritsi zen. Beraz, pandemia aurreko ehunekoa berreskuratu da. Hala ere, emakumeen lan baldintzak askoz ere prekarioagoak dira. Hala, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (EPA) arabera, 2022ko lehen hiruhilekoan emakumeen %25,8k lanaldi partzialean lan egiten zuten, eta gizonen kasuan, berriz, %7,0k soilik.

Lan merkatuari buruzko informazio berrienak, Gizarte Segurantzako afiliazioaren bidez ezagututakoak, adierazten du bigarren hiruhilekoko hilabeteetan enplegua sortzeko joera hedakorrek bere horretan jarraitu duela, %2,5eko erritmoan, aurreko hilabeteetan jasotakoaren antzekoa baita. Kasu horretan, emakumeen aldeko alborapena hautematen da, haien aldakuntza tasa (%2,8) gizonena (%2,3) baino handiagoa baita. Hiru ekoizpen sektore nagusiek parte hartzen dute afiliazioaren hazkunde horretan, baina zerbitzuen intentsitatea gailentzen da (%3,0), bereziki ostalaritza (%10,9) eta jarduera artistikoak (%14,4).

2022ko lehen hiruhilekoan, guztizko langabezia tasa %9,1era jaitsi zen, aurreko urtean zegoena baino ia bi puntu beherago. Aldea ikusten da sexu bakoitzaren tasan; izan ere, gizonen artean langabezia tasa %8,5 izan zen eta emakumeen artean, berriz, %9,7. Beraz, aurreko hiruhilekoko diferentziala hamarren batzuetan handitu da, lan merkatuko partaidetzaren hazkundera bi sexuetan antzekoa den une honetan.

BPGaren eta enpleguaren igoera handiak %0,6ko produktibitate irabazia utzi du hiruhilekoan, tasa apal samarra, baina pandemia hasi aurreko urteetan lortutako balioekin bat datorrena. Arrazoi kontrajarriengatik, deigarria da industriaren eta eraikuntzaren bilakaera. Lehenengo kasuan, produktibitatearen irabazia %3,8 izan zen, eta ezohikoa, industriarentzat ere handia baita. Bigarrenetan, produktibitatea galdu egin da (-%1,4), eta aurreko hamabi hiruhilekoetako datu negatiboak ere gehitu zaie.

## Barne eta kanpo eskaria

Lehen hiruhilekoko BPGaren hazkunde nabarmenak eskarien arteko banaketa ez ohikoa izan du. Hain zuzen ere, kanpo saldoak alde batera utzi du bere neutraltasuna, eta ia barne eskariak bezainbesteko ekarpena egin dio BPGaren hazkundeari. Beraz, 2021eko bigarren erdian egindako ekarpen garrantzitsua are gehiago handitu egin du. Mundu osoan hautematen den ondasunen eskari handiak munduko merkataritza suspertu du, eta hori EAeko esportazioen eta inportazioen bilakaeran nabaritu da, oso erritmo altuan egin baitute gora. Zehazkiago adierazita, esportazio errealak %13,6 hazi ziren, aurreko bi aldietan baino zertxobait gehiago, eta inportazioak, berriz, %8,9.

### ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
<b>BPG errealak</b>	<b>-9,9</b>	<b>5,6</b>	<b>-2,9</b>	<b>18,6</b>	<b>3,9</b>	<b>4,7</b>	<b>5,7</b>
Gastua azken kontsumoan	-8,9	4,8	-2,5	18,1	2,4	2,7	2,6
- Familien gastua kontsumoan	-12,4	5,3	-3,7	22,6	2,1	3,0	3,1
- Adminis. gastua kontsumoan	3,8	3,0	1,6	5,2	3,5	1,7	0,6
Kapital eraketa gordina	-11,7	6,3	-1,3	21,4	3,7	4,3	3,9
- Ekipamendu ondasunak	-12,9	12,8	1,9	41,3	7,6	7,5	6,6
- Gainontzeko inbertsioa	-11,0	2,6	-3,2	11,2	1,5	2,2	2,2
Barne eskaria	-9,6	5,1	-2,2	18,9	2,7	3,1	2,9
Esportazioak	-16,1	11,8	-2,4	30,1	12,5	11,1	13,6
Inportazioak	-15,4	10,8	-1,4	29,8	10,2	8,1	8,9

Iturria: Eustat.

Bestalde, barne eskariak egonkortasuneko irudia eskaini zuen hazkunde erritmoan, aldakuntza tasa aipagarrietan, baina ez oso altuetan. Horrela, lehen hiruhilekoko urte arteko tasa %2,9 izan zen, hau da, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago eta hirugarren hiruhilekoan baino bi gehiago. Horren ondorioz, pandemiaren aurreko maila berreskuratzetik bost puntu baino gehiagora dago oraindik.

Azken kontsumoko gastuak ia ez zuen erritmoa aldatu aurreko hiruhilekoaren aldean, eta %2,6 handitu zen urte batetik bestera. Alde batetik, herri administrazioen kontsumoak tasak moteltzen jarraitu zuen, eta %0,6ra iritsi zen, azken urteetako baliorik txikiena baita.



Pandemiaren kontrolak, biztanleriaren txertaketa masiboari esker, eta ekonomiak zein enpleguak lortutako bultzadak esku hartze publikoa hain beharrezkoa ez izatea ahalbidetu dute eta horren gastua ez da, beraz, lehen bezain hedakorra izan. Bestetik, familien gastua %3,0tik zertxobait gora mantendu zen, hau da, espero zena baino balio txikiagoan, kontuan hartuta pandemiak atzeratutako eskaria asetu gabe dagoela. Dena dela, tasa hori 2015-2019 aldian batez beste erregistratu zen erritmoarekin bat dator. Ukrainako gerrak sortu duen ziurgabetasuna eta aurtengo lehen hilabeteetan bizi izandako inflazio handia, familien erosteko ahalmena murrizten duena, kontsumo pribatuaren bilakaera hori azaltzen duten arrazoiak bi dira.

Ziurgabetasun hori bera, lehengaien prezioen igoera eta pieza jakin batzuen entregaren atzerapena egon daitezke kapital eraketa gordinak aurtengo hasieran izan zuen balaztaren atzean, aurreko hiruhilekoan hasitako bizkortzea eten baitzuen. Hala eta guztiz ere, lortutako urte arteko aldakuntza tasa (%3,9) esanguratsua da. Aurreko hiruhilekoetan bezala, bultzadarik handiena ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioak eskuratu zuen, %6,6ko hazkundera izan baitzuen, aurreko bi datuak baino puntu bat gutxiago. Gainerako inbertsioa, eraikuntzan egindakoa barnean hartzen baitu, %2,2 apal hazi zen, 2021eko laugarren hiruhilekoan lortutako kopuru bera.

## KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
<b>Kontsumoa</b>							
Azalera eta kate handietako salmentak	2,2	0,2	1,6	3,6	-2,9	-1,1	-1,0
Txikizkako merkataritza indizea	-4,9	3,5	-0,7	15,4	-2,3	3,3	4,9
Kontsumo ondasunen ekoizpena	-6,6	11,9	0,3	25,7	11,0	11,8	9,0
Kontsumo ondasunen inportazioa	-0,3	20,0	17,6	22,7	17,5	22,6	11,0
Turismoen matrikulazioa	-22,0	-19,7	-12,0	40,3	-41,8	-32,3	-14,0
<b>Inbertsioa</b>							
Ekipo ondasunen ekoizpena	-12,5	13,3	-0,3	34,6	10,6	11,7	15,2
Ekipo ondasunen inportazioa	-16,4	21,1	7,7	43,1	17,3	20,1	19,6
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-22,5	7,0	20,6	75,5	-10,9	-28,4	-22,6
Etxebizitza berriak eraikitzeke oniritziak	-6,5	39,6	72,6	48,9	36,6	9,9	0,2
Lizitazio ofiziala	-23,7	63,2	46,5	131,6	71,6	29,2	53,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Barne eskariaren moderazioa kontuan hartuta, EAEko ekonomiaren hazkundearen bizkortzea kanpo saldoaren ekarpen handiagoak eragin zuen. Lehen hiruhilekoko ekarpen hori 2,7 puntu ingurukoa izan zen, oso balio altua baita, nahiz eta ez duen luzaroan iraungo. Susperraldiaren beste fase batzuetan ere (2009, 2011 eta 2012), BPGari ekarpen esanguratsuak egin zizkion, baina tamaina txikiagoak izan ziren eta, edonola ere, iragankorrak.

Kanpo arloaren azterketan, prezioek hiruhilekoko datuetan izan duten bilakaera aipatu behar da. Izan ere, lehenago aipatu den esportazio errealeen %13,6ko igoera hori %27,2ko hazkunde nominal bati dagokio. Beraz, eurotan eskuratutako igoera hori, ia erdibana, saldutako kopuruaren gorakadatik eta prezioen igoeratik dator. Hala eta guztiz ere, esportazio errealek zein nominalek, serie historiko osoko baliorik gorenak eskuratu zituzten hiruhileko horretan. Inportazioen analisiak antzekotasun batzuk eskaintzen ditu, zeren eta hazkunde errealeak (%8,9) eta nominalak (%23,3) iradokitzen baitute prezioen garestitzea %15era hurbildu zela. Inportazioen balio nominala ere serie historikoko handiena izan zen (14.889 milioi euro), eta gutxigatik gainditu zuen esportazioen balioa (14.725 milioi euro).

Kanpora bidaltzen diren esportazioen ia erdia atzerrira bideratzen dira. Zehazki, atzerrira bidalitako ondasunen salmentak 7.391 milioi euro izan ziren aurtengo lehen hiruhilekoan, serie historikoak inoiz izan duen kopururik handiena. Kopuru hori 2021eko aldi berean erregistratutakoa baino %21,7 handiagoa da, eta urte horretako bigarren erdian erregistratutako balioei jarraipena ematen die, biak ere %20tik gora kokatu zirelako. Orain arte, Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazka armatuak eta azken herrialde horri ezarritako zigorrak ez dute oztopatu nazioarteko merkataritza, erritmo onean hazten ari baita. Eurogunearen kasuan, lehen hiruhilekoan esportazioak %16,6 gehitu ziren eta inportazioak, berriz, %39,7.

Hala EAEn nola European, produktu energetikoen esportazioak eragin handia izan du hiruhilekoaren emaitzan. Hain zuzen ere, EAEn erregai mineralen salmentak bikoiztu eta gehiago egin zuen aurreko urtean erregistratutako balioa (%124,8), nahiz eta benetan saldutako produktuen tonak 2021ekoak baino %17,2 handiagoak bakarrik izan. Beraz, erregai mineralen atalean esportatutako balioaren gehikuntzaren zati handi bat produktuaren garestitzearen ondorio izan zen.

Energiaz bestelako produktuen kasuan, esportazioen balioaren gehikuntza tasa apalagoa izan zen (%17,1) eta saldutako kopuruak aurreko urtekoak baino txikiagoak izan ziren. Goranzko prezioen eragina oso adierazgarria da metal arrunten eta horien manufakturen esportazioan, %35,6 handitu baitzen haien balioa, nahiz eta saldutako tonak 2021ekoak baino %3,3 txikiagoak izan.

Eremu geografikoen arabera, EAEko esportazioak gehiago hazi dira garapen bidean dauden herrialdeetan (%34,7) herrialde garatuetan baino (%19,4). Horren ondorioz, ELGAko herrialdeetara bideratzen diren esportazioen ehunekoa pixka bat murriztu da, baina oraindik ere oso handia da (%83,8). Orobat, euroguneko herrialdeak dira produktu horien merkatu nagusiak, atzerrian saldutako guztiaren %57,4 jaso baitute.

## ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	I
<b>GUZTIRA</b>	<b>-17,8</b>	<b>23,0</b>	<b>42,2</b>	<b>22,2</b>	<b>22,2</b>	<b>21,7</b>	<b>7.391.350</b>
ELGE	-16,5	23,9	43,3	22,6	22,4	19,4	6.192.118
Eurogunea	-12,7	25,9	44,7	26,6	23,0	23,4	4.240.832
Alemania	-6,1	13,4	29,2	2,8	8,9	7,8	1.179.523
Frantzia	-17,5	27,4	46,6	29,9	27,8	23,5	1.192.729
Italia	-9,4	26,5	35,7	35,9	19,3	39,0	441.721
Erresuma Batua	-42,2	26,2	61,4	28,6	12,9	-3,5	423.097
AEB	-23,8	16,8	17,1	15,8	38,2	27,2	465.416
ELGETik kanpokoak	-24,0	18,2	36,8	19,9	20,8	34,7	1.199.232

Iturria: Eustat.

Aipatu behar da pandemiaren etorrerak EAEko enpresen esportazioak ingurune geografiko hurbilenean kontzentratu dituela. Hori horrela, 2019ko laugarren hiruhilekoan euroaren eremua guztizkoaren %50,8 izan zen bitartean, aurtengo hasieran ehunekoa aipatutako %57,4ra igo da. Gainera, lehen aldia da hiruhileko batean esparru horretara esportatutako balioa 4.000 milioi eurotik gorakoa dela. Ibilgailu automobilak, erdieroaleen faltagatik abagune zaila bizi izan baitute, dira Euskaditik eurogunera esportatzen den produktu nagusia, eta lehen hiruhilekoan salmentak %5,2 murriztu ziren. Jaitsiera hori pisua duten beste produktu talde batzuek konpentsatu zuten, batez ere galdaketarekin zerikusia zutenek, salmenten balioa %50 inguru handitu baitzuten.

EAEko enpresen bi merkatu nagusietako bilakaera desberdina izan zen. Alde batetik, Alemanian esportazioak %7,8 baino ez ziren areagotu, ibilgailu automobilen merkataritza harremanaren kontzentrazio handiak baldintzatuta. Atal horrek herrialdera zuzendutako esportazio guztien ia erdia biltzen du, eta salmentak %10,4 murriztu zituen. Hala eta guztiz ere, jaitsiera hori

galdaketako atalen bilakaera onak (%60 inguru hazi ziren) eta makina eta tresna elektrikoak (%29,9ko urte arteko aldakuntza tasarekin) konpentsatu zuten.

Beste aldetik, Frantziara bidalitako esportazioak zertxobait moteldu ziren aurtengo hasieran, eta lortutako hazkunde tasa %23,5 izan zen, oso esanguratsua baita, laugarren hiruhilekoz jarraian EAEko ekonomiaren atzerriko merkatu nagusi gisa mantentzen duena. Hiruhilekoaren ezaugarriak merkatu horretan Alemaniako aipatutakoen antzekoak izan dira, baina Frantziarako esportazioen egitura ez da hainbeste kontzentratzen automobiletan (-%4,9), baizik eta hainbat produkturen artean banatzen da. Produktu horien artean pisu handi samarra dute makineriak (%58,8), galdaketak (%36,8) eta kautxuak (%61,3), eta hirurek gehikuntza tasa azpimarragarriak eskuratu zituzten lehen hiruhilekoan.

Italiak emaitza harrigarriak jasotzen jarraitzen du eta lehen hiruhilekoan herrialde horretan egindako salmentak %39,0 hazi ziren, 442 milioi eurora iritsi arte. Horrela, Erresuma Batuan saldutako kopurua lehen aldiz gainditu du. Italiatik, gehien eskatzen diren EAEko produktuak honako hauek dira: burdina eta altzairua galdatzea eta galdaketako manufakturak dira, biak batuta guztizkoaren laurdena biltzen baitute, makineria mekanikoa eta elektronikoa, ia beste laurden batekin, ibilgailu automobilak, %10 pasatxo, eta kautxua, %8 ingururekin. Guztiek, autoek izan ezik, oso portaera ona izan zuten aldi horretan.

Erresuma Batua izan zen Europako atzerriko merkatuen bilakaera onaren salbuespena. Zehazki, herrialde horretan egindako salmentak %3,5 murriztu ziren, ibilgailu automobilen atalean erregistratutako jaitsieragatik (-%11,8), eta horrek garrantzi handia du herrialde horretara esportatzeko egiturari. Makineriak eta galdaketak, aldiz, aldakuntza tasa positibo oso esanguratsua lortu zituzten. Trenbideetako ibilgailuen salmentan ere portaera positiboa izan zen, esportatutako balioa hirukoiztu egin baitzen, nahiz eta kopuru hori 2019an lortutako zenbateko handietatik urrun egon.

AEBen kasua Europako ekonomien portaeratik urrundu da, esportazioek produktu taldeen arabera izan duten bilakaerari dagokionez. Guztira, EAEko salmentak herrialde horretan %27,2 areagotu ziren, eurogunean eskuratu zen tasaren antzekoa baita, baina kasu honetan ez da ahultasunik ikusten automobilen salmentan. Aitzitik, aurreko urteko esportazioak hirukoiztea lortu zen, eta atal horrek salmenta guztien %14,6 biltzen ditu jadanik. Kontrako zentzuan, erregai mineralen esportazioa, guztizkoaren bostena biltzen baitu, %3,7 murriztu zen. Gainerako produktuei dagokienez, galdaketarekin eta manufakturrekin lotutakoek aparteko igoerak izan zituzten, baina makinek %20tik gorako jaitsierak izan zituzten.

EAEtik atzerrira bidalitako esportazio gehienak herrialde garatuetara bideratzen diren arren, garapen bidean dauden ekonomiek ere paper garrantzitsua dute bezero gisa. Izan ere, lehen hiruhilekoan 1.199 milioi euroko salmentak egin ziren herrialde horietan, Frantziara egindako esportazioak (EAEko atzerriko merkatu nagusia hori baita) baino zertxobait gehiago. Urte arteko hazkundera handia izan zen, %34,7koa, eta erregai mineralen 259 milioi euroko salmenta garrantzitsuak baldintzatu zuen. Eremu horretan ere ibilgailu automobilen esportazioak hazkunde nabarmena izan zuen (%63,7).

Txina da garapen bidean dagoen herrialde nagusia, eta 185 milioi euro erosi zituen EAEko produktuetan. Merkatu horretan, gero eta paper garrantzitsuagoa ari da jokatzeko ibilgailu automobilen esportazioa, guztizkoaren %54,2 biltzen baitu jada, duela urtebete bere ehuneko herrialdera esportatutako guztiaren %3ra iristen ez zenean. Aitzitik, galdaketako manufaktura pisua galtzen ari dira merkatu horretan, eta hiruhilekoko 20 milioi euro inguruko zifrak lortu ondoren, azken aldietan 3 milioira baino ez dira iristen. Azkenik, makineriak beheranzko bideari eutsi dio, bai salmentei dagokienez, bai egitura esportatzailearen barruko ehunekoei dagokienez.

Errusia aztertzea merezi duen herrialdea da, Europar Batasunak zigorrak ezarri baititu Ukrainaren inbasio armatuagatik. Aurtengo lehen hiruhilekoan neurrien eragina erabatekoa izan ez bazen ere, zenbait ondorio nabaritzen hasi dira. Guztira, EAEko esportazioak herrialde horretara 2021eko lehen hiruhilekoan 87 milioi eurokoak izatetik 2022an 54 milioikoak izatera igaro dira. Hau da, beherakada %38,7koa izan da. Beherakada hori automobilgintzan gertatu da bereziki, bai ibilgailu automobilen salmentan (-%92,5), bai kautxuarenean (-%42,4). Herrialdera egindako esportazioen egituraren barruan pisua duen beste partida, makineria, %20 baino pixka bat gehiago hazi zen, hiruhileko batzuetan ondoz ondoko jaitsierak izan ondoren.

Brasilek protagonismoa irabazi du merkatu gisa lehen hiruhilekoan, eta 81 milioi eurora iritsi dira herrialdean egindako salmentak. Kopuru hori beste hiruhileko batzuetan gainditu zen, baina beti produktu energetikoen salmentagatik, eta hiruhileko honetan, ordea, produktu ez-energetikoak bakarrik saldu dira. Zehazki, makineriak esportazioen erdia baino gehiago bildu du, eta aurreko urteko kopurua bikoiztu baino gehiago egin du. Gainera, aireko nabigazioak ere emaitza oso ona lortu zuen, %31,9ko hazkundearekin.

Inportazioek ere goranzko bilakaera nabarmena izan zuten hiruhilekoan. Horrela, atzerrian egindako ondasunen erosketak aurreko urtekoak baino %42,4 handiagoak izan ziren eta 6.413 milioi eurora iritsi ziren, serie historikoko kopururik gorena baita. Igoera handi horren zati bat erregai mineralak erosteak eragin du (%76,5), eta horien prezioa nabarmen igo da, baina gainerako produktuek ere asko egin dute gora (%34,9). Azken horien artean, metal arruntak nabarmentzen dira, %53,1eko hazkundera eskuratuta.

Hiruhileko honetan ere, erosketak gehiago hazi ziren garapen bidean dauden herrialdeetan (%56,5) garatutakoetan baino (%36,0), neurri batean erosketak energetikoen jatorriaren ondorioz. 2022ko lehen hiruhilekoan, erregai mineralen jatorri nagusia Brasil izan zen, baina iaz ez zen ezer erosi herrialde hartan. Saillapenaren bigarren postuan Errusia agertzen da, 2021ekoaren oso antzeko kantitatearekin. Herrialde garatuak hirugarren (Erresuma Batua) eta bosgarren (AEB) postuetan agertzen dira, eta kasu bietan bikoiztu egin ziren bi herrialdeetatik ekarritako inportazioak. Energia alde batera utzita, euroaren eremuko herrialdeak EAEko ekonomiarako produktuen hornitzaile handiak izan ziren. Gainera, hiru herrialde nagusiek antzeko aldakuntza tasak eskuratu zituzten, zertxobait handiagoak Frantziaren kasuan, eta bilakaera ona izan zuen burdin galdaketak (%41,8). Alemaniatik makineriaren inportazioa %20 inguru hazi zen.

## INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	I
<b>GUZTIRA</b>	<b>-21,9</b>	<b>34,1</b>	<b>58,9</b>	<b>41,4</b>	46,9	<b>42,4</b>	<b>6.412.748</b>
ELGE	-18,9	28,0	54,3	28,4	31,8	36,0	4.218.132
Eurogunea	-14,4	28,5	58,2	31,7	24,6	31,0	2.797.417
Alemania	-14,9	21,1	42,4	20,8	14,1	26,6	942.220
Frantzia	-11,8	29,8	56,8	32,8	27,5	32,7	623.940
Italia	-11,3	34,8	73,0	40,0	10,6	24,3	328.300
Erresuma Batua	-20,0	33,6	40,9	13,5	53,9	131,6	358.883
AEB	-39,9	20,6	-19,1	42,1	67,6	187,2	327.468
ELGETik kanpokoak	-28,4	48,8	69,5	76,2	93,1	56,5	2.194.616

Iturria: Eustat.

Esportazioen eta inportazioen konbinaketak 979 milioi euroko merkataritza saldoa utzi du atzerriarekiko ondasunetan, EAEn alde. Saldo hori aurreko hiruhilekoko baino zertxobait handiagoa da, baina urrun dago beste aldi batzuetan lortutakoetatik. Horren arrazoia da energiaren saldoa, negatiboa izan ohi dena, igo egin dela prezioak garestitu direlako. Aitzitik, saldo ez-energetikoa 1.831 milioi eurora iritsi zen, eta kopuru hori azken urteetan erregistratu direnen antzekoa da. Herrialdeka, superabita lortu da herrialde garatutakoekin (1.974 milioi euro) eta defizita, ordea, gorabidean daudenekin (-995 milioi euro). Txinak, Errusiak eta Brasilek biltzen dute defizit horren zatirik handiena, 859 milioi euroekin.

## Prezioak, soldatak eta kostuak

Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazka belikoak prezioak aztertzen dituzten adierazleen bilakaera baldintzatzen du gorantz bultzatuta. Horrela, BPGaren deflatoreak azken urteetako erregistrorik handienak izan zituen 2021eko azken hiruhilekoan eta 2022ko lehenengoan, urte arteko %4,6ko eta %3,5eko aldakuntza tasekin, hurrenez hurren, Eustatek emandako informazioaren arabera.

KPIak bi zenbaki inguruko aldakuntza tasak jaso zituen, eta goranzko joera etengabea erakutsi zuen, apirilean bakarrik galgatu zena, eta goranzko bideari heldu zion berriro maiatzean, eskuragarri dauden azken datuak hileko horretakoak baitira. Kontsumoko prezioek garestitze bizkorra izan zuten 2021eko azken hilabeteetan, zenbait produkturen eskari handiagatik eta zenbait jardueratan botila lepoengatik, baina gatazka belikoaren hasierak prezioetako tentsioak areagotu ditu, bereziki produktu energetikoetan. Era berean, neurri txikiagoan bada ere, elikagaien prezioek gora egin zuten, elikagaien eta energiaren lehengaien garestitzearen ondorioz.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2020	2021	2021	2022		Ekarpena
			IV	I	Maiatza	
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	5,5	7,6	8,3	8,3
Azpiko inflazioa (%80,5)	0,8	1,0	1,8	3,1	4,7	3,7
- Elikagai landuak (%16,7)	1,7	1,4	2,2	5,0	8,7	1,4
- Industria ondasunak (%23,6)	0,3	1,0	1,8	3,7	4,2	0,9
- Zerbitzuak (%40,2)	0,8	0,7	1,6	1,9	3,4	1,4
Hondar inflazioa (%19,5)	-4,0	12,1	21,1	26,4	22,4	4,6
- Landu gabeko elikagaiak (%9,5)	4,0	2,6	3,5	6,0	10,7	1,0
- Energia (%10,0)	-9,4	21,3	38,0	45,7	32,4	3,6

Iturria: INE.

Lehenago ere adierazi denez, energiaren prezioak KPIaren indize orokorraren bilakaera baldintzatu du. Horrela, petrolio eta gasa izan ziren lehengaien garestitzearen buru. Lehenak, martxoaren hasieran ezarri zituen preziorik altuenak, eta maiatzaren amaieran berriro ere indarra hartu zuen, munduko merkatutik Errusiako petrolio upel ugari erretiratzeko aukeraren

ondorioz izandako eskaintza arazoengatik, beste herrialde ekoizle batzuek nekez ordezka zitzaketenak. Bestalde, gas naturalak ere oso balio altuak aurkeztu zituen martxoaren hasieran, eta zuzenketa nabarmena izan zuen hurrengo hilabeteetan, Ukrainako gatazka belikoak era berean eraginda. Orobat, prezio energetikoen gorakadaz gain, oinarritzko hainbat metalen (nikela edo aluminioa, esaterako) prezioetan gorakada nabarmenak izan ziren, eta zereal batzuetan, garian adibidez, Errusia eta Ukraina dituelako ekoizle nagusi.

Gerraren intentsitateari eta iraupenari buruzko gaur egun dagoen ziurgabetasunak perturbazio are negatiboagoak eragin ditzake lehengaien merkatuetan, eta, beraz, prezioen oraingo igoera hau larriagotu egin daiteke. Hala eta guztiz ere, oro har, aurtengo bigarren erdian prezioen igoera erritmoa motelduko dela aurreikusten da, kontsumoa apaldu ahala eta gasaren eta gasolinaren prezioa mugatzeko akordioek inflazioaren bilakaera egonkortzea ahalbidetuko duten heinean. Horiek horrela izanda ere, inflazioaren etorkizuneko bilakaera gaur egungo igoerei erantzuteko sor daitezkeen zeharkako eta bigarren errondako ondorioek baldintzatuko dute.

Bestalde, euroaren eremuko inflazioak ere erregistro errekorrak markatu zituen, eta aldakuntza tasak Euskadin erregistratutakoak baino apur bat txikiagoak bakarrik izan ziren; beraz, bi lurraldeen arteko diferentziala, maiatzeko behin-behineko datuekin, bi hamarrenetara baino ez zen iritsi. Diferentzial hori guztiz txikia da, nahiz eta EAEko ekonomiaren energia intentsitatea handiagoa izan eta sistema elektrikoaren prezio dinamikoen eredia erregulatutako zatian aplikatu, hegakortasun handiagoa eragiten duena.

Inflazio globalak ez bezala, azpiko inflazioak goranzko bidean jarraitzen duela ematen du. Maiatzean, serie historiko osoko tasarik handiena markatu zuen, %4,7ko erregistroarekin, aurreko datua baino lau hamarren gehiago, energiaren prezio altuak erosketara saskiko gainerako osagaietara igarotzen jarraitzen dutelako, kontsumoko prezioen gune egonkorrena osatzen dutenak barne.

Horiek horrela, energiaz bestelako industria ondasunen osagaia maila globaleko botila lepoek baldintzatu zuten, bereziki ibilgailuei, ordezeko piezei eta osagarriei, eta altzariei eta tresnei eragin baitzieten. Beste aldetik, prestatutako elikagaiak garestitu egin ziren, batez ere, garraioaren kostu handiengatik eta ongarrien zein elikagai arloko lehengaien garestitzeagatik. Azkenik, zerbitzuen prezioek erakutsi duten hazkunde erritmo nabarmena jatetxeen prezioen bizkortzeak eragin zuen, energiaren kostuen eta elikagaien garestitzeak zerbitzuetara igaro direla islatuz.



KPIa osatzen duten taldeen artean, berriz ere etxebizitza izan zen inflazio tasarik gorena (%17,8) jaso zuena, nahiz eta beheranzko joera nabarmena erakutsi zuen bere hazkundean, argindarraren prezioak gutxiago garestitu zirelako. Era berean, gasolinaren prezioaren igoerak bultzatutako garraio taldearen tasa %13,6 igo zen. Orobat, elikagaien eta edarien garestitzea nabarmendu zen (%10,1). Erregistro hori INEk kalkuluak egiten hasi zenetik jaso den altuena da, Ukrainako gerrak nazioarteko merkatuetan hainbat lehengairen prezioa igoarazi zuelako. Azkenik, hotelak, kafetegiak eta jatetxeak ere garestitu egin ziren (%6,1), denboraldi turistiko onak eta elikaduraren zein energiaren kostuek izan zuten eragina direla eta.

## EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	Maiatza
<b>Indize orokorra</b>	<b>-0,1</b>	<b>3,1</b>	<b>2,7</b>	<b>3,4</b>	<b>5,5</b>	<b>7,6</b>	<b>8,3</b>
Janariak eta alkohol gabeko edariak	2,8	2,0	1,3	2,0	2,9	5,7	10,1
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,2	0,4	0,0	-0,1	1,2	2,5	4,1
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	1,0	1,1	1,0	3,9	2,3
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-3,3	11,3	10,6	11,9	20,7	26,8	17,8
Etxeko hornidura	0,5	1,9	1,8	2,1	2,8	4,6	5,9
Medikuntza	0,5	0,8	0,7	0,8	1,3	0,8	0,2
Garraioa	-3,6	7,3	8,7	8,6	11,6	13,4	13,6
Komunikazioak	-1,1	-2,9	-4,5	-2,9	-0,3	-0,6	-0,2
Aisia eta kultura	-1,0	-0,1	-1,1	-0,6	1,6	1,3	2,9
Irakaskuntza	1,1	0,9	0,6	0,8	1,7	1,5	1,5
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,2	1,2	0,4	1,4	2,0	3,2	6,1
Besteak	0,9	1,3	0,8	2,0	2,2	3,0	4,0

Iturria: INE.

Industriako prezioak ere ez ziren salbuespena izan prezio altuen dinamika horretan. Hain zuzen ere, goranzko joerarekin jarraitu zuten, eta, apirilean, beren serie historiko osoko erregistrorik altuena erregistratu zuten, %26,3ko gorakada izan baitzen. Ukrainako gerrak eta garraioko grebak horniduran eragindako disrupzioen ondorioz, helburu ekonomikoaren arabera ondasun talde handi guzti-guztiek urte arteko aldakuntza tasa positiboak jaso zituzten, guztien artean produktu energetikoen bilakaera nabarmenduz, jada %70eko aldakuntza tasak jaso baitituzte.

Euskadiko negoziazio kolektiboak, beste behin ere, aurrerapen gutxi izan zituen urteko lehen lau hilabeteetan; izan ere, langileen %29,5ek baino ez du bere hitzarmena eguneratuta, eta horrek esan nahi du gainerakoek, 425.000 pertsona inguruk, beren soldatak izoztuta dituztela. Hitzarmenak indarrean dituzten ia 178.000 pertsonen kasuan, batez besteko soldata igoera %3,8 izan zen, eta, beraz, alde nabarmena dago inflazioaren igoerarekin, aldi horretan % 7,8koa izan baitzen.

#### HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,9	2,0	1,7	1,2	3,8
- Urtean zehar sinatutakoak	2,2	2,3	1,2	1,1	3,0
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,0	2,1	1,7	1,0	3,6
- Enpresako hitzarmenak	1,6	1,8	1,7	1,9	4,2

(\*) 2022ko apirilera arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, inflazio handiko oraingo testuinguruan, energiaren garestitzeak eragin baitu, oraingoz soldata kostuek gehikuntza tasa apalak jasotzen jarraitu zuten, eta ez du ematen prezioen igoera biziek gorantz bultzatzen ari direnik. Moteltze hori aurreko urtearekin alderatzen delako gertatu da batez ere. Urte horretan, lan kostuak nabarmen handitu ziren, aldi baterako enplegua erregulatzeko espediente baten eraginpean zeuden pertsonen kopurua (enpresak zati batean baino ez zuen haien soldata ordaindu behar) murriztuz joan baitzen, 2020ko hasieran maximoak erregistratu ondoren.

Lan kostuen hazkundeak moteldu egin ziren, bai 2021eko bigarren erdian, bai 2022ko lehen hiruhilekoan. Hala eta guztiz ere, lan kostu horiek osatzen dituzten partidek gorakadak izan zituzten aldi horietan. Horrela, langile bakoitzeko soldata kostua, lehen hiruhilekoan, %2,5 igo zen, eta gainerako kostuak, berriz, %0,8. Aitzitik, ordu bakoitzeko lan kostuak gehiago aldatu ziren, benetako lanaldia aldakorragoa izan baitzen, aparteko orduengatiko igoerekin, eta arrazoi teknikoengatik, ekonomikoengatik, antolakuntzakoengatik eta ezinbesteko arrazoiengatik jaisierekin. Zehazki, urte honen hasieran, orduko lan kostua %0,5 murriztu zen, eta soldata kostua ez zen aldatu (% 0,0).

## LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
Lan kostu guztiak langileko	-1,1	4,9	3,1	8,9	4,5	3,4	2,1
- Soldata kostua guztira	-1,9	4,9	2,7	9,6	4,0	3,8	2,5
- Bestelako kostuak	1,1	4,8	4,1	7,3	5,9	2,2	0,8
Lan kostu guztiak orduko	5,9	-2,4	2,6	-9,0	-2,9	0,3	-0,5
- Soldata kostua guztira	5,0	-2,4	2,3	-8,5	-3,4	0,7	0,0
- Bestelako kostuak	8,4	-2,6	3,6	-10,4	-1,7	-0,9	-1,8
Adostutako lan orduak	-0,4	1,5	2,0	1,4	1,3	1,4	-0,1
Benetan lan egindako orduak	-6,8	7,2	0,5	19,8	7,5	3,0	2,5

Iturria: INE.

## Arlo publikoa

Foru aldundiek ia 400 milioi gehiago bildu zituzten zergen bidez aurtengo maiatzera arte, neurri batean prezioen igoera handiak lagunduta, zerga bilketa handitzen lagundu baitzuen. Zehazkiago azalduta, 5.887 milioi euro bildu ziren, hau da, 2021eko lehen bost hilabeteetan baino %7,1 gehiago. Kopuru hori, positiboa bada ere, apirilera arte metatutako %18,4ko igoeraren azpitik dago, iazko maiatzean Bizkaiko foru ogasunak 437 milioi euroko aparteko diru sarrera izan zuelako, administrazio zentralarekiko desadostasunak konpondu izanaren ondorioz, Bilboko portuan kokatuta dagoen hidrokarburoetako terminal baten BEZaren harira.

Era berean, aldi horretan zergadunei mesede egiteko itzulketei eta geroratzeei buruz hartutako erabakiek, neurri batean, geldiarazi zuten diru bilketa, foru erakundeek ziurgabetasun ekonomikoko une batean enpresa sarearen likidezia bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko konpromisoaren froga gisa.

Aurreko aldietan ez bezala, zeharkako zergek (%5,4) zuzeneko zergek (%4,5) baino parte hartze handiagoxea izan zuten diru bilketaren igoeran. Azken horien artean, PFEZren bilakaera nabarmentzen da, %6,1eko gorakadarekin, enpleguak gaur egun bizi duen indarra agerian uzten duena. Balio horiek esanguratsuagoak izango dira uztailen, diru sarrerak kontabilizatzen direnean, oraingoz zerga horrek itzulketak baino ez baititu islatzen.

## TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-maiatza)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2021	2022	% Ald. 22/21
PFEZ	2.121.436	2.250.208	6,1
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	2.436.311	2.582.198	6,0
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	80.171	73.682	-8,1
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	35.469	37.527	5,8
- Ondare irabazien atxikipenak	27.768	38.718	39,4
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	9.477	24.453	158,0
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	60.718	79.806	31,4
- Kuota diferentzial garbia	-528.477	-586.175	-10,9
Sozietateen gaineko zerga	278.086	287.639	3,4
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	80.171	73.682	-8,1
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	35.469	37.527	5,8
- Ondare irabazien atxikipenak	27.768	38.718	39,4
- Kuota diferentzial garbia	134.679	137.712	2,3
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	23.078	39.979	73,2
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	79.937	61.381	-23,2
Ondarearen gaineko zerga	5.491	-6.794	-223,7
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	-	-	-
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	10.625	258	-97,6
<b>ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>2.518.654</b>	<b>2.632.671</b>	<b>4,5</b>
BEZaren bertoko kudeaketa	1.936.797	2.012.744	3,9
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	68.837	74.824	8,7
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	16.152	20.332	25,9
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	10.852	9.339	-13,9
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.330.608	1.470.116	10,5
Aseguru sarien gaineko zerga	39.963	46.094	15,3
Joko jardueren gaineko zergak	3.678	2.359	35,9
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	1.604	1.909	19,0
Iraungitako zergak	-16	-3	84,0
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>2.754.884</b>	<b>2.905.008</b>	<b>5,4</b>
<b>TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>35.508</b>	<b>42.005</b>	<b>18,3</b>
<b>BERTON KUDEATUTAKO TRIBUTU ITUNDUAK</b>	<b>5.309.046</b>	<b>5.579.684</b>	<b>5,1</b>
BEZaren doikuntza	441.468	674.017	52,7
Zerga berezien doikuntza	-253.665	-366.673	-44,5
<b>TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA</b>	<b>5.496.849</b>	<b>5.887.028</b>	<b>7,1</b>

Iturria: Foru aldundiak.

Analisia zuzeneko zergekin jarraituz, adierazi behar da sozietateen gaineko zergak ere hazkunde tasa positiboa eskuratu zuela denbora horretan (%3,4), baina PFEZren kasuan bezala, zergaren bilakaera argiago ikusiko da abuztutik aurrera. Hain zuzen ere, errentaren gaineko zergarekin gertatzen den bezala, urteko lehen hilabeteetan diru bilketaren diru kopuru gehienak aurreko urteko kanpainako itzulketei dagozkie, eta kontabilizatzen diren diru sarrerak nahiko txikiak izaten dira.

Arreta gunea zeharkako zergetan jarrita, azpimarratu behar da BEZak, kudeaketa propioaren atalean, aldakuntza tasa positiboak jasotzen jarraitu zuela (%3,9), ez hainbeste fakturatutako kopurua handitu delako, baizik eta erosketa saskiaren prezioek gora egiteari utzi ez diotelako. Ildo horretan, zenbait produktu multzotan, batez ere elikagaietan eta alkoholik gabeko edarietan, serie historiko osoko garestitze tasarik handienak erregistratu dira aurtengo lehen hilabeteetan.

Azkenik, zerga bereziek bildutako diru kopurua %10,5 areagotu zen, elektrizitatearen gaineko zergak beheranzko bilakaera erakutsi zuen arren. Hala, zerga horren bilketak nabarmen egin zuen behera (-%79,9), elektrizitatearen garestitze handia mugatzen saiatzeko hartutako lege aldaketen ondorioz. Zehazki, BEZa %10eraino jaitsi zen osagai eta kolektibo batzuentzat, eta elektrizitatearen gaineko zerga berezia %0,5era. Aitzitik, zerga berezien artean pisurik handiena duen elementuak, hidrokarburoak zergapetzen dituenak, %11,1 handitu zuen bilketa, urtearen lehen erdian mugikortasuna berreskuratu zelako, 2021eko lehen seihilekoaren zati handi batean indarrean zeuden murrizketekin alderatuta. Amaitzeko, alkoholaren gaineko zergek tasa negatiboetan jarraitu zuten (-%26,0).

## **Arlo finantzarioa**

Finantza merkatuek hegakortasun handia erakutsi dute gerra hasi zenetik eta finantza zigorrak ezarri zirenetik. Gatazkaren hasierak honakoak ekarri ditu: aktiborik seguruenetarantz ihes egitea, hegakortasuna handitzea eta finantzaziorako baldintzak okertzea. Zehatzago adierazita, merkatuko interes tasak goratu egin dira moneta politikaren perspektiben aldaketari eta inflazioaren dinamikari erantzunez, eta arrisku sariak goranzko bideari heldu diote berriro. Hala ere, orain arte ez da tentsio larririk antzeman diru merkatuetan, ezta likidezia eskasirik ere euroaren eremuko banku sisteman.

Inflazioaren etengabeko gorakadaren aurrean, banku zentralen papera erabakigarria izan da prezioei egonkortasuneko mailetan eusteko. Horregatik, ekonomia aurreratuetako banku zentralak beren moneta politikaren tonua gogortzen hasi ziren. AEBetan, Erreserba Federalak

bere interes tasa ofizialen urkila handitu zuen, 2022ko martxoan, 25 oinarri puntutan, maiatzean berriro igo zuen, 50 puntutan, eta ekainean 75 puntutan, maila hori %1,5-%1,75ean kokatzeraino. Halaber, urtea amaitu baino lehen gehiagotan igoko dituela adierazi zuen, eta bonu publikoen, agentzia zorraren eta hipotekatan babestutako aktiboen edukitza murrizketaren hasiera iragarri zuen. Analistek interes tasen igoera berriak espero dituzte, harik eta urte amaieran interes tasa %2,5 inguruan finkatu arte.

Europako Banku Zentralak (EBZ), beste aldetik, ezohiko egokitze maila zuen abiapuntu batetik ekin zion moneta politika normalizatzeko prozesuari. Pandemia hasi baino lehen, EBZk finantzaziorako baldintza oso lasaiak zituen aktiboak erosteko programaren (APP) eta interes tasa negatiboen bidez. Inflazioa bultzatzea zen helburua, %2tik behera mantendu baitzen behin eta berriro. Pandemian zehar, finantza zatiketaren arriskuaren eta sortutako joera deflazionisten aurka borrokatzeko, EBZk, beste neurri batzuen artean, pandemiari aurre egiteko larrialdiko erosketen programa indarrean sartu zuen. Programa hori funtsezkoa izan da krisialdian finantzaziorako baldintza oso onak edukitzeko eta eremuko herrialde guztietan familietan, enpresetan eta sektore publikoan duen eragina minimizatzeko.

Inflazioaren etengabeko gorakadak (maiatzean %8,1era iritsi zen euroaren eremuan) justifikatzen du moneta alorreko ezohiko estimulua pixkanaka-pixkanaka kentzea. Hala, martxoan amaitu ziren PEPParen erosketak garbiak, eta ekainean, berriz, APParenak. Orobat, erakundeak iragarri du uztailean onartuko dela interes tasen lehen igoera, 0,25 oinarri puntukoa, eta, ondoren, bigarren bat iritsiko dela irailean. Ez da baztertzeko igoera gehigarriak egitea, interes tasa naturalarekin bat datozen mailetara iritsi arte, baldin eta EBZren helburuaren inguruko epe ertaineko inflazio aurreikuspenei eusten bazaie. Analistek %1,5erainoko igoerak aurreikusten dituzte.

Ingalaterrako Bankuak ere 90 oinarri puntutan igo du bere interes tasa ofiziala 2021eko abendutik, eta %1,0an finkatu du, hau da, 2009tik izan duen mailarik altuenean. Halaber, Kanadako (%1,5) eta Zeelanda Berriko (%2,0) banku zentralek, aktiboak erosteko beren programak pixkanaka murriztu ondoren, erreferentziazko interes tasak ere igo dituzte.

Bestalde, garatzeko bidean dauden ekonomiek, Asiakoek izan ezik, iaz hasitako moneta politikaren ziklo murriztailearekin jarraitu zuten. Brasilek, adibidez, maiatzean hamargarren igoera egin zuen jarraian, eta oinarritzko interes tasa %12,75era igo zuen, apirilean %12,13an kokatu zen inflazioa geldiarazteko asmoz.

## ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2020	2021	2022					
			Urt.	Ots.	Mar.	Ap.	Mai.	Eka. (*)
<b>Interes tasa ofizialak (%)</b>								
Europako Banku	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,5-0,25	0,5-0,25	0,75-1,0	1,5-,175
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,10	0,25	0,25	0,50	0,75	0,75	1,0	1,0
Txinako Banku	3,85	3,80	3,70	3,70	3,70	3,70	3,70	3,70
Brasilgo Banku Zentr.	2,00	9,25	9,25	10,75	10,75	11,75	11,75	12,75
<b>10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna</b>								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	63	77	74	100	89	104	111	129
Grezia	120	149	176	238	212	240	245	269
Erresuma Batua	77	115	129	126	106	97	98	82
Italia	110	136	135	160	149	184	201	231
AEB	149	168	177	168	177	195	172	171

(\*) Ekainaren 15eko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua.

Joera orokor horretatik erabat aldendu zen erakundea Japoniako Bankua izan zen, maiatzean esku hartze tasa negatiboen (-% 0,10) moneta politikari eusten baitzion, 10 urterako bonuaren errendimendua %0,25etik gorakoa ez izateko konpromisoarekin, eta horretarako beharrezkoak diren bonu guztiak erosteko prest dago.

Banku zentralek egindako eta aurreikusitako mugimendu horien guztien ondorioz, merkatuek deskontatutzat ematen baitituzte jadanik, eta inflazioaren presioen etengabeko tentsioaren ondorioz (oraingoz mugarik ez dutela ematen baitu), zor subiranoa saltzeko joera areagotu zen. Horiek horrela, munduko gobernuen bonuen prezioek behera egin zuten, eta horien errentagarritasunak gora egin zuen. AEBetako 10 urterako bonuaren errendimendua %3,1ekoa izan zen maiatzaren hasieran, 2018ko azarotik ikusi gabeko mailak baitira horiek, eta, ondoren, %3tik behera egonkortu zen, eta gainerako zor subiranoak kutsatu zituen erakutsi zuen igoera horrekin.

Horrela, Alemaniako bund-ek %1,27ko errentagarritasunak gainditu zituen ekainaren hasieran, 2014ko uztailetik izan duen mailarik altuena baita hori, eta Italiaren eta Espainiaren zorrak ere tenkatu egin ziren. Hain zuzen ere, hamarkada baterako Espainiako bonuaren errentagarritasuna 2014ko abuztuko maximoetara igo zen, %2,4raino, eta Italiako bonuarena,

berriz, %3,4tik gora kokatu zen, 2018ko urritik kotizatzen ez zuen kotatik gora. Horren guztiaren ondorioz, bi herrialdeetako arrisku sariak 2020ko martxoko mailetara itzuli ziren ekainaren hasieran, pandemiak eragindako finantza ezegonkortasunaren bete-betean, eta EBZk larrialdian jardun behar izan zuen. Prima italiarrak 210 oinarri puntuak gainditu zituen eta Espainiakoak, berriz, 115 puntuak.

Moneta politiken gogortzearen aurrerapenak, Txinako hazkundera apaltzen ari zela erakusten zuten seinaleek, gerrak, inflazioak eta AEBko merkatuko mozkinen ahuleziak eragina izan zuten inbertitzaileen arriskuagatik gosean, eta burtsa indize nagusiek galera handiak pilatzen jarraitzea eragin zuten. Zehazkiago, Europako indizeak izan ziren zigortuenak. Hala, urtea hasi zenetik, Eurostoxx-50 indizeak %13,2 egin du behera; Atlantikoaren beste aldean, S & P 500 indizeak %12,8 egin du atzera, eta Dow Jones indizeak, azkenik, %9,0. Nolanahi ere, guztietan galerak garrantzitsuak izan ziren.

## ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2020	2021	2022				
			Urt.	Ots.	Mar.	Ap.	Mai.
<b>Truke tasak</b>							
Dolarra/euro	1,141	1,184	1,131	1,134	1,102	1,082	1,058
Yena/euro	121,8	129,9	130,0	130,7	130,7	136,6	136,2
Libera esterlina/euro	0,889	0,860	0,835	0,838	0,836	0,837	0,850
Yena/dolarra	106,8	109,8	114,9	115,2	115,6	126,2	--
€ efektibo nomin.(%)	99,7	99,7	96,6	96,9	95,9	95,2	95,6
<b>Burtsa indizeak (*)</b>							
IBEX35	-15,5	7,9	-1,2	-2,7	-3,1	-1,5	1,6
Eurostoxx-50	-5,1	21,0	-2,9	-8,7	-9,2	-11,5	-13,2
Dow Jones	7,2	18,7	-3,3	-6,7	-4,6	-9,2	-9,0
Nikkei 225	16,0	4,9	-6,2	-7,9	-3,4	-6,8	-6,9
Standard & Poors	16,3	26,9	-5,3	-8,2	-4,9	-13,3	-12,8

(\*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte.

Iturria: Espainiako Bankua.

Ibex-35 indizea, berriz, Wall Streetetik eta Europako burtsek jasandako zartakotik aldendu zen, eta maiatza irabaziekin itxi zuen. Zehatz-mehatz adierazita, bai apirilean bai maiatzean irabaziak izan zituen (%1,6 eta %3,1, hurrenez hurren), eta horri esker, maiatzean %1,6ko urteko errebalorizazioarekin amaitu zuen. Espainiako indizearen jarduera erlatibo hobea, neurri batean behintzat, Espainiako merkatuan kotizatutako enpresek Ukrainako gerraren ondorio



ekonomikoekiko duten zuzeneko esposizio txikiagoaren ondorio izan daiteke, Europako indizeko enpresen aldean.

Moskuko burtsa, azkenik, martxoaren 24an ireki zuten berriro, otsailaren 25etik itxita egon ondoren, Moskuko parkearen itxiera aldirik luzeena izan den honetan. Irekiera hori hainbat mugarekin egin zen, negoziazio ordutegi murrizta (lau orduz baino ez da negoziatzen) eta posizio laburren debekua barne. Hala eta guztiz ere, maiatzaren amaieran bere egoerak konplikatu izaten jarraitu zuen. Hasierako galeren zati bat berreskuratu badu ere -inbasioaren egunean burtsak %45,6ko beherakada izan zuen-, MOEX indize errusiarrek %39,2ko galerak izaten jarraitzen du.

Burtsetatik ihes egin zuten kapitalak babesleku aktiboetara igaro ziren, arriskuarekiko ezinikusia dagoenean ohikoa den bezala. Fed-eko kideek EBZren gradualtasunaren aurrean erakutsi zuten tonu oldarkorragoa, Txinako osasun egoeratik ondorioztatzen zen ziurgabetasuneko joera eta Ukrainako gatazka belikoa dolarraren babesgarri izan ziren, eta aldi berean, Errusiako petrolioaren enbargatzeak Europako ekonomian duen eraginari buruzko ziurgabetasunak euroaren kotizazioa geldiarazi zuen. Horren guztiaren ondorioz, euroak behera egin zuen maiatzaren 13an, 1,038 dolarreraino euroaren truke, 2017ko urtarriletik izan duen kotizazio txikiena, eta bi dibisen arteko parekotasunaren beldur izatera iritsi zen. Ondoren, uztaila Europako Banku Zentralak tasak igotzeko une egokia izan zitekeela argitaratzeak moneta bakarra apur bat suspertzea ahalbidetu zuen.

Euroa ahuldu egin zen beste ekonomia handi batzuetako moneten aldean ere, hala nola libera esterlinaren (%0,1) eta franko suitzarraren (%0,5) aldean, eta gorabidean dauden ekonomia gehienek moneten aldean ere devaluatu egin zen, Txinako renminbia kasu. Bilakaera positiboa yenaren aldean baino ez zuen izan, moneta horren aldean %5,8 irabazi baitzuen, Japoniako Bankuak bere moneta politika EBZk aurreikusitakoa baino erritmo nabarmen txikiagoan gogortuko zuelakoan.

Aipamen berezia merezi du errubloaren bilakaera, Mendebaldearen zigorrekin aurre egiten dielako eta dolarrarekiko zein euroarekiko bi urteko maximoetan kokatzen delako. Ukraina inbaditu ondoren batez ere AEBek, Erresuma Batuak eta Europar Batasunak Errusiaren aurka abiarazi zuten neurri-sortak moneta nazionala bere minimo historikoan hondoratu zuen. Hala ere, hilabetea igaro baino lehen gerra hasi aurreko maila berreskuratu zuen, eta gorakada ez da gelditu. Horrela, 2022an dibisa gorakorrena bihurtu zen. Gainera, errubloaren susperraldiari mesede egin zion Errusiako Bankuak bere historiako interes-tasen igoerarik handienak, errubloa defendatzeko larrialdiko mugimendu batean. Finantzetaren kostua %9,5etik %20,0ra igo zen. Neurriak bere helburua lortu zuen, eta moneta agintaritzak jada murriztu du erreferentziazko tasa, herrialdeari ere eragiten dion inflazio handiari aurre egiteko. Errusiako Bankuaren azken


erabakiak %14ra jaitsi zituen tasak, eta behar bezain jarraitzea aurreikusten du, dibisak erakutsitako indarra ikusita.

Euriborrek, bestalde, gora egin zuen banku zentralak oso azkar igotzen ari den inflazioari eusteko moneta politika aurreikusitako baina azkarrago gogortzeko itxaropenaren aurrean. Zehazki, 12 hilabeterako euriborra 2021eko abenduan  $-0,502$  inguruko minimo historikoetatik lau hilabete baino gutxiagoan balio positiboetara igaro zen. Hain zuzen ere, apirilaren 12an zeroa gainditu zuen ( $0,05$ ) lehen aldiz sei urte baino epe luzeagoan, analisten aurreikuspenei aurrea hartuz, ez baitzuten espero ikur negatiboa utziko zuenik urtearen bigarren erdira arte gutxienez. Goranzko joera horrek maiatz osoan bere horretan jarraitu zuen, eta ekainaren 6an  $0,521$  izan zen. Adierazleak oinarrizko 100 puntu egin du gora bost hilabete pasatxoan, eta horrek aurreikuspen guztiak lainotu ditu. Izan ere, historikoki, euriborrek ez du inoiz puntu erdiko aldea izan urteko daturik altuenaren eta baxuenaren artean, ezta 2020an ere.

### Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hipoteken merkatuari dagokionez, etxebizitzaren salmentak gorakada etengabea izan zuen hilabetez hilabete; etxebizitzaren eskariaren eta erosketaren gorakada progresiboa, 2006-2007ko boomaren zifretatik urrun egon arren, merkatuaren dinamismoa berresten duena. INEek argitaratutako hipoteken sinadurak hala berresten du. Zehatzago esanda, 2022ko lehen hiruhilekoan 5.865 hipoteka formalizatu ziren, azken hamaika urteetan erregistratu gabeko kopurua baita. Tasa errekorretan ere jarraitu zuena tasa finkoko hipotekak sinatzea izan zen. Zehazki, hipoteken %72,3 tasa finkoan formalizatu ziren, neurri handi batean euriborraren hazkundeak bultzatuta.

Datu horien ildotik, Espainiako Bankuak argitaratzen duen bankuetako maileguen inkestak jasotzen duenez, etxebizitzetarako kredituak handitu egingo ziren, bai kontsumitzaileen konfiantza handiagoagatik, bai etxebizitzaren merkatuaren aurreikuspen onengatik; kontsumorako familiei onartu zaizkien kredituak, berriz, murriztu egin ziren berriro. Aitzitik, lehen hiruhilekoko kreditu pribatuek gogortu egin dituzte enpresei maileguak emateko irizpideak, jasotako arriskuak handitu egin direlako eta finantza erakundeek haiekiko tolerantzia txikiagoa izan dutelako. Horrek eskaerak eta emakidak murriztu ditu. Ondorioz, sektore pribaturako kredituak %1,3 jaitsi ziren, baina aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zorpetze maila 29 milioi baino ez zen murriztu. Beste aldetik, kreditu publikoek bere zorpetzea areagotu zuten berriro, eta, ondorioz, kreditu guztien batez besteko hazkundea %0,3koa izan zen. Balio horiek goranzko joerara itzultzen dituzte kredituak, hiru hiruhilekotan etengabe moteldu ondoren.

## KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2020	2021	2021			2022		Aldea 2008-IV eta 2022-I	
			II	III	IV	I	I	Milioi €	Tasa
<b>Kredituak</b>	<b>2,4</b>	<b>0,1</b>	<b>-1,4</b>	<b>-0,9</b>	<b>0,1</b>	<b>0,3</b>	<b>70.411</b>	<b>-17.009</b>	<b>-28,8</b>
Arlo publikoa	7,0	15,8	-3,2	10,6	15,8	11,7	9.625	7.596	374,5
Arlo pribatua	1,8	-1,9	-1,1	-2,6	-1,9	-1,3	60.786	-24.605	-28,8
<b>Gordailuak</b>	<b>5,7</b>	<b>4,7</b>	<b>4,4</b>	<b>6,3</b>	<b>4,7</b>	<b>5,6</b>	<b>96.203</b>	<b>19.860</b>	<b>26,0</b>
Arlo publikoa	27,1	53,1	15,2	53,7	53,1	50,2	8.837	3.104	54,1
Arlo pribatua	4,4	1,2	3,6	3,3	1,2	2,6	87.366	16.756	23,7
Agerikoak	9,0	5,1	7,7	7,5	5,1	6,3	80.293	53.305	197,5
Eperakoak	-20,1	-26,6	-22,5	-24,4	-26,6	-26,9	7.073	-36.549	-83,8

Iturria: Espainiako Bankua.

Gordailuei dagokienez, burtsa merkatuen ezegonkortasunaren ondorioz, aurreztaileek bankuetako gordailuen aldeko apustua egin zuten berriro, inbertitutako kapitala bermatzen duten produktuak baitira, nahiz eta une honetan errentagarritasun txikia eskaintzen duten. Izan ere, gordailu pribatuak %2,6 hazi ziren eta 87.366 milioi euroko muga gainditu zuten, aurrekaririk gabeko kopurua delarik. Beste hiruhileko batez, gehikuntza hori ageriko gordailuetan eta kontuan egindako ekarpenetan oinarritu zen, epera bideratutakoak %26,9 murriztu baitziren. Honekin zortzi urte dira etengabeko uzkurduetan. Gaur egun, 7.000 milioi euro baino gutxiago inbertitzen dira produktu horietan, eta boom ekonomiko betean, metatutako zenbatekoa 43.600 milioi eurotik gorakoa zen. Azkenik, sektore publikoak berriro

inbertitu zuen gordailuetan. Horren guztiaren ondorioz, guztizko gordailuek %5,6ko hazkundera izan zuten, eta 96.200 milioi eurotik gorakoa.

## Aurreikuspenak

Koronabirusaren pandemiak eragindako bi urteko krisiaren ondoren, munduko ekonomia suspertzen ari zela eta 2022-23 urteetarako panorama ekonomikoa aldekoa zela zirudienean, gerra basati eta suntsitzailea hasi da Europan. Errusiak Ukraina inbaditu izanak zatiketa ekonomikoa ekarri du berekin -herrialde askok Errusiarekiko merkataritza loturak eten dituzte-, eta osasuneko krisiaren ondorengo susperraldia desbideratzeko mehatxua egin du. Halaber, pandemiaren bilakaerak bere garairik gordin eta bortitzena atzean utzi badu ere, Txinak ezarri duen zero Covid politikak itxierak eragin ditu herrialde hartako hiri eta portu nagusietan, eta munduko aurreikuspenak iluntzen jarraitzen du, herrialdearen hazkundera geldiaraziz eta nazioarteko hornidura kateetara nahasmena ekarriz. Horrekin batera, neurririk gabeko inflazio handia dago, inbasioak areagotua, batez ere erregaien eta elikagaien prezioetan, eta horrek eragin handiagoa du biztanleriaren segmentu ahulenetan, batez ere diru sarrera txikiko herrialdeetan.

Horiek horrela izanda, badirudi egungo egoerak hazkunde ekonomikoa txikiko eta inflazio handiko aldi batera eramango duela munduko ekonomia, eta aurreikuspeneko erakunde ofizial nagusi guztiek berrikuspen garrantzitsuak egin dituzte. Zehatz-mehatz adierazita, ELGAK, ekaineko txostenean, 2022an munduko jardura ekonomikoa %3,0 haziko dela aurreikusten du, 2021eko abenduan espero zuen %4,5aren aldean. Aldiz, 2023rako aurreikusitako hazkunde tasa %2,8an finkatzen du. Murrizketa handi horrek, neurri batean, Errusian (%9,0 inguru) eta Ukrainan (%30,0 inguru) aurreikusten diren atzeraldi sakonak islatzen ditu, baina baita ekonomia gehienetara, bereziki europarretara, hedatuko den kaltea ere.

Hain zuzen ere, eurogunea %2,6 soilik haziko da 2022an, abenduan kalkulatu zuen %4,3aren aldean. 2023an, berriz, BPGaren hazkunde tasa are ahulagoa izango da, %1,6an kokatu baitu orain, (%2,5 espero zen abenduan), datorren urtean Errusiako petrolioaren eta ikatzaren inportazioen enbargoak izango duen eraginaren ondorioz (faktore horiek kalkuluetan sartuta daude jadanik). Nahiz eta Europako ekonomiak ahalegin handiak egiten ari diren Errusiako erregaia alde batera uzteko, ordezeko energia iturriak eskuratzea ez da ez azkarra ez erraza izango, eta, beraz, ez da baztertzeko prezioak gehiago igotzea eta produktu energetiko batzuk nahi beste ez izatea.

## EKONOMIA AURREIKUSPENAK

### Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2021	2022	2023	2021	2022	2023
Munduko ekonomia	5,8	3,0	2,8	--	--	--
AEB	5,7	2,5	1,2	3,9	5,9	3,5
Eurogunea	5,3	2,6	1,6	2,6	7,0	4,6
Alemania	2,9	1,9	1,7	3,2	7,2	4,7
Frantzia	6,8	2,4	1,4	2,1	5,2	4,5
Italia	6,6	2,5	1,2	1,9	6,3	3,8
Erresuma Batua	7,4	3,6	0,0	2,6	8,8	7,4
Kanada	4,5	3,8	2,6	3,4	6,0	3,9
Japonia	1,7	1,7	1,8	-0,2	1,9	1,9
Txina	8,1	4,4	4,9	0,8	2,0	3,0
India	8,7	6,9	6,2	5,6	6,7	6,5
Brasil	5,0	0,6	1,2	8,3	9,7	5,3

Iturria: ELGA (2022ko ekaina)

AEBek ere sufritu egingo dute Moskuk hasitako gatazkagatik. Bere ekonomia %2,5 soilik haziko da aurten, duela sei hilabete kalkulaturakoa baino ia puntu bat gutxiago, eta %1,2, berriz, 2023an. Bestalde, ELGAK Txinarentzat abenduan aurreikusten zuen %5,1 hura %4,4an geratuko da orain, eta datorren urtean %4,9ra baino ez da igoko.

Ukrainako gerra eragin handia izaten ari da gorabidean dauden herrialdeen artean ere, oinarrizko produktuen prezioen gorakadaren eta munduko hazkundearen ahultzearen bidez. Eskualdeko oinarrizko produktuak esportatzen dituzten herrialde batzuk beren esportazioen hazkundearen onurak jasotzen ari diren arren, ondorio ekonomiko positibo horiek kontsumitzailearentzako prezioen igoerak, konfiantza ahulagoak eta nazioko eta munduko interes tasen igoerak indargabetzen dituzte. Izan ere, Munduko Bankuaren ekaineko txostenaren arabera, Latinoamerikan eta Kariben ez da aurreikusten BPG %2,5 baino gehiago haziko denik aurten, eta Afrikaren kasuan %3,7 izango dela aurreikusten da; Ekialdeko Europan, berriz, gatazkaren epizentroan, %2,9ko uzkurdura kalkulatu da 2022an, eta, ondoren, %1,5 haziko da 2023an.

Azkenik, aurreikuspenen arabera, kontsumitzailearentzako prezioen inflazioa altua izango da, eta batez beste %8,5 inguruko tasa kalkulatu da ELGA osoarentzat 2022an. Tentsio horiek 2023an atzera egingo dute, hornidura katearen eta lehengaien prezioen gaineko presioak

arinduko diren heinean, eta moneta baldintza zorrotzagoen inpaktuaren eragina nabaritzen hasten den unean. Azpiko inflazioa, moteltzen ari bada ere, bai 2022an bai 2023an ekonomia garrantzitsu askotan ezarri diren helburuen gainetik egongo dela aurreikusten da.

Espanian ere, aurreikuspenek beheranzko zuzenketa handiak jasan dituzte. Esate baterako, Ceprederen arabera, Espainiako ekonomia %4,9 haziko da 2022an eta %2,6, berriz, 2023an. Epe laburrean, gerrak jardueran eragin nabarmena izaten jarraituko duela espero da, eta, beraz, igurikimenen beherakadaren eta prezioen igoeraren eragin metatuak barne eskariaren suspertzeko prozesua, bereziki kontsumo pribatuarena, geldiaraziko du. Hala ere, kanpoko turismoaren suspertzeak moteltze hori partzialki konpentsatuko du.

Datu horiek bat datoz Espainiako Bankuak ekainean argitaratutakoekin. Izan ere, BPGaren hazkudearen beheranzko berrikuspena jasotzen dute 2022an, 0,4 puntukoa, nahiz eta 2023rako hamarren bateko goranzko berrikuspena egin. Zehazki, erakundeak %4,1eko hazkunde tasa kalkulatu du BPGarentzat 2022an eta %2,8koa 2023an. Horri esker, Espainiako ekonomiak pandemiaren aurreko jarduera maila berreskuratu ahal izango du 2023ko bigarren erdian.

#### ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2022ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022			2022	2023
	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>5,7</b>	<b>4,1</b>	<b>3,4</b>	<b>4,9</b>	<b>2,6</b>
Kontsumo pribatua	0,1	0,7	1,7	1,3	3,3
Kontsumo publikoa	0,7	0,3	2,1	1,0	1,2
Kapital eraketa gordina	8,1	9,8	8,9	8,4	6,5
- Taldeko inbertsioa	14,2	13,3	11,0	12,7	5,2
- Landatutako aktiboen inbertsioa	7,3	5,8	4,8	6,6	3,3
- Eraikuntzako inbertsioa	2,3	5,5	7,9	4,3	7,3
Barne-eskaria	1,9	2,3	3,1	2,7	3,6
Esportazioak	20,5	13,6	7,2	15,2	4,2
Inportazioak	9,2	9,1	6,6	9,2	7,0

Iturria: Ceprede.

Ingurune ekonomikoari buruzko aurreikuspenekin eta koiunturazko informazio berrienarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurtengo aurreikuspenak eguneratu

ditu, eta jakin badaki gaur egungo egoerak zailtasun berezia dakarrela epe ertainean agertoki makroekonomiko bat egiteko, zentzuzko aldi batean mantendu ahal izango dena. Horren erakusgarri dira munduko zein estatuko adituen paneletan etengabe ikusten diren berrikuspenak. Aipatutako zuhurtziarekin, 2022rako aurreikuspen berriak BPGaren hazkunde tasa erreala %4,5ean kokatzen du berriro, eta hazkunde nominala, berriz, %10,0ra eraman du orain, deflatoarea, urteko batez bestekoan, %5,2 haziko dela aurreikusten baita une hauetan.

Printzipioz, aurreikuspen hori betetzen bada, EAEko ekonomiak pandemiaren aurretik zuen BPGa, termino errealetan, aurten berreskuratuko du. Zehazkiago adierazita, laugarren hiruhilekoan berreskuratuko litzateke galdutako guztia. Balio nominaletan, hau da, BPGa uanean uneko eurotan neurtuta, aurtengo lehen hiruhilekoan 20.620 milioi euroko aberastasuna sortu zen, inoiz erregistratu den gehieneko kopurua baita, eta, beraz, 2019ko hiruhilekoetako zifrak gainditu ziren.

Erakunde adituek beherantz egindako berrikuspen guztiek Ukrainako gerra eta horren ondorioak aipatzen dituzte une honetako ziurgabetasuneko iturri nagusitzat. Gatazka luzatu eta Errusiaren aurkako zigor berriak hartu ahala, munduko ekonomian izango duen eragina gero eta handiagoa izango da. Lehen inpaktua eremu ekonomiko guztietara iritsi da energiaren prezioen bidez, eta goranzko ibilbide luzea izan dute, herrialde erasotzailea erregai mineralen (petrolio eta gasa) ekoizle handienetako bat baita munduan. Brent motako petrolio martxoan iritsi zen gailur batera (122,67 dolar upel bakoitzeko), eta gerora nabarmen merkatu bazen ere (104,7 dolar apirilean), ekainean 130 dolarretik oso gora kokatu da. Gerrak eragindako tentsioei eskariaren susperraldi handia gehitu behar zaie, bidaiatzeko nahia, azken konfinamenduen ondoren Txinaren irekiera eta petrolio tratatzeko findegirik eza barne. Horrek pentsarazten du petrolioaren prezioak bere horretan jarraituko duela edo are gehiago igoko dela datozen hilekoetan.

Gasaren prezioak antzeko bilakaera izan zuen eta MWHaren prezioa 131 eurokoa izan zen martxoan, hurrengo hilabeteetan zertxobait merkatzeko. Hala ere, orainoz ez du gorakadarik izan ekainean. Bere prezioak elektrizitatearena baldintzatzen du neurri handi batean, azken hau martxoan ere maximora iritsi baitzen (283 euro MWHak), baina ondorengo hilabeteetan pixka bat merkatu da (187 euro), nahiz eta duela urtebete zituen balioen oso gaineratik egon (67 euro). Halaber, energiari beste lehengai batzuen eragina gehitu behar zaio, batez ere nekazaritzakoak, garestitu egin baitira eta ez baitute merkatzeko itxurarik, Ukrainatik alea ateratzeko arazoak ikusita.

Horrek guztiak agerian uzten du inflazioa dela aurreikuspenak egiterakoan kontuan hartu beharreko aldagai nagusietako bat, eta erakunde adituak egiten ari diren zuzenketa gehienak prezioak igotzen jarraitzearen ondorio direla, eta horrek urrundu egiten duela hasieran aipatzen

zen iragankortasunaren ideia. Eusko Jaurlaritzaren agertokian, %6tik gorako deflatorea aurreikusi da aurtengo erdiko bi hiruhilekoetan, eta urteko batez besteko balioa %5,2 da, hamarkadetan ezagutu ez den intentsitatekoa.

## EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2022ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022			2022
	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>4,5</b>	<b>4,1</b>	<b>4,0</b>	<b>4,5</b>
Azken kontsumoa	-1,6	2,5	3,2	1,6
Kontsumo pribatua	-2,4	2,6	3,6	1,7
Kontsumo publikoa	1,0	2,1	2,1	1,5
Kapital eraketa gordina	7,7	10,0	7,0	7,1
Barne eskariaren ekarpena	0,2	5,0	4,0	3,0
Kanpo saldoaren ekarpena	4,2	-0,9	0,1	1,5
Lehen arloa	-2,4	-1,3	4,2	-0,5
Industria eta energia	6,6	7,2	5,8	6,5
Eraikuntza	7,9	7,6	9,6	6,8
Zerbitzuak	4,8	3,2	4,0	4,5
Balio erantsi gordina	5,4	4,4	4,8	5,1
Ekoizkinen gaineko zergak	-3,3	1,5	-2,7	-0,2
BPG nominala	10,8	10,5	8,2	10,0
BPGaren deflatorea	6,1	6,2	4,0	5,2
Lanaldi osoko lanpostuak	3,3	2,0	2,7	3,2
Landunak (BJA)	1,9	1,4	1,8	2,0
Langabezia tasa	8,9	8,7	8,6	8,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Nahiz eta orain 2022rako aurreikusi den hazkunde tasa aurreko txostenean aurkeztutako bera izan (%4,5), haren osaera modu garrantzitsuan aldatu da, lehen hiruhilekoko kontu ekonomikoen xehetasunak ezagutu ondoren. Funtsean, egungo agertokian barne eskariaren bultzada txikiagoa eta kanpo saldoak hazkundeari ekarpen handiagoa egingo duela aurreikusten da. Kanpoko merkataritzaren portaera ezusteko atsegina da, gaur egungo koiuntura ekonomikoak uzten diguna. Izan ere, oro har, esportazioek eta inportazioek antzeko hazkunde tasak izan dituzte, eta, beraz, BPGari egindako ekarpenak, zeinu positiboarekin edo negatiboarekin, oso txikiak izan dira. Hala eta guztiz ere, azken hiru hiruhilekoetan ekarpen



horiek positiboak eta tamaina handikoak izan dira. Zehatz-mehatz, lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomiaren hazkundearen ia erdia kanpoko saldotik etorri zen. Horregatik, aurreikuspen horretan urteko batez besteko ekarpena 1,5 puntukoa izatea espero da, martxoan -0,3 puntukoa aurreratzen zen bitartean.

Barne eskariaren oraingo aurreikuspen apalagoa kontsumo pribatuaren bilakaeraren ondorioa da, uste zena baino gutxiago hedatzen baita atzeratutako eskaria eta pandemian zehar sortu zen aurrezpen handia kontuan hartuta. Hala ere, prezioen igoerak familien erosteko ahalmena murriztu du eta etorkizunari buruzko nolabaiteko ziurgabetasuna sortu du, eta horrek gastua geldiarazi du. Horrela, urteko batez bestekoan, kontsumo pribatua %1,7 haztea espero da, baina urtearen bigarren erdian tasak handiagoak izango dira.

Ziurgabetasunak enpresei eta haien inbertsio erabakiei ere eragiten die. Hala eta guztiz ere, testuinguru berrira ondo egokitzen ari direla ematen du. Zentzu horretan, kanpoko eskari handiak eta mikrotxipak eta beste produktu batzuk gero eta modu erregularrago iristek pentsarazten dute kapital eraketa gordinak erritmoa bizkortuko duela datozen hiruhilekoetan, urteko batez besteko balioa %7,1ekoa izan arte, hau da, aurreko urtekoa baino hamarren batzuk gehiago. Agertokian, espero da ekipamenduan eginiko inbertsioak egungo tonu altuari eutsiko diola eta gainerako inbertsioa bizkortuko dela eraikuntzako inbertsioari esker, Europako funtsek lagunduta.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzaren ikuspegitik, 2022rako espero den dinamismoa nabarmena izango da hiru sektore nagusietan. Alde batetik, industriak urte osoan zehar lehen hiruhilekoan erakutsitako joerari eutsiko diola espero da, eta tasarik altuena hirugarren hiruhilekoan iritsiko da, hortik aurrera apaltzeko joera txikia hasiko bailitzateke. Bestetik, eraikuntza indartsu haziko da urtearen hurrengo hiruhilekoetan, Europako funtsen etorrerak eta azken hilabeteetan erregistratzen ari den etxebizitza eskariak bultzatuta. Era berean, zerbitzuak modu dinamikoan eboluzionatuko dira turismo zerbitzuen eskari handiagatik eta industriak eta eraikuntzak dituzten premiengatik. Lehen hiruhilekoan erregistratutako %6,0 mantenduko ez den arren, espero den urteko batez bestekoa (%4,5) 2021ekoa baino puntu erdi txikiagoa izango da bakarrik.

Enpleguari dagokionez, 2022rako aurreikuspenaren arabera, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %3,2 handituko da urteko batez bestekoan, hau da, aurreko urtean baino 30.500 lanpostu gehiago beharko dira. Aurreikuspen hori betez gero, pandemian galdutako enplegu gutzia berreskuratuko zen, baina oraindik 20.000 lanpostu beharko ziren Atzeraldi Handiaren aurretik zeuden milioi bat lanpostuetara berriro itzultzeko. Lanpostu teorikoak kontuan hartu beharrean, analisia pertsona landunei buruzkoa bada, aurreikuspenak adierazten du %2,0ko igoera izango dela aurten, eta horrek esan nahi du 19.000 pertsona gehiago izango direla lanean. Langabezia tasaren jaitsiera esanguratsua izango da eta %9tik jaitsiko da aurten, urteko batez bestekoan.


Inflazioaren bilakaera da egungo agertoki makroekonomikoaren zalantza nagusia. Prezioen igoera azkar motelduko balitz, duela hilabete batzuk aurreikusi zen bezala, epe ertainean hazkunde biziago bat planteatzeko aukera emango luke. Hala ere, gaur egungo informazioaren arabera, EBZk nahi duen bezala, %2ko prezio erritmoetara itzultzeak uste baino denbora gehiago beharko du. Agertoki horretan, deflatoarearen urteko batez bestekoa 5,2koa da, lehen hiruhilekoko (%4,6) baino sei hamarren handiagoa. Horretarako, KPIa maitzeko %8,3tik tasa baxuagoetara moteltzen joatea espero da. Izan ere, eredu sustengatzen duten hipotesien artean, estatuko kontsumo pribatuaren deflatoarea dago, % 5,0koa, eta esportazioen deflatoarea, % 11,1ekoa.

Txosten honetan aurkezten den aurreikuspena garamatzaten beste hipotesi batzuen arabera, interes-tasek gora egingo dute aurtengo bigarren erdian, balio negatiboak utzi arte. EBZk dagoeneko iragarri du portaera hori eta uztailean zein irailean igoerak onartuko dituela iragarri du. Euroak dollarraren aldean izango duen truke tasari dagokionez, hipotesia da ez dela 2021eko balio galerarekin jarraituko eta egungo kanbioak, hots, 1,12 dolar euro bakoitzeko, gorabehera txikiekin mantenduko dela urteko datozen hilekoetan ere. Azkenik, Espainiarako, euroaren eremurako eta ELGARako kontuan hartu diren aurreikuspenak bat datoz aurreko ataletan aipatutakoekin.


Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenak 2022rako hiru puntuko tartearen daukan urkila baten erdialdean dago. Urkila horren mutur batean, BBVA bankuak espero duen %3,3 dago eta betean Laboral Kutxak iragarri zuen %6,3. Zabalera hori, neurri handi batean, aurreikuspen bakoitza egin zen datuen arabera azaltzen da, eta denboran urrunago daudenean tasa handiagoak aurreikusi zuten. Confebaskek eta Laboral Kutxak 2021eko abenduan egin zituztenak alde batera uzten badira, gaur eguneko testuingurutik oso urrun daudelako, BBVAren aurreikuspena nabarmentzen da. Beste aldetik, Cerepredek eta Hispalinkek zenbatetsi duten hazkunde erritmoa EAEko ekonomiarentzat ez da Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenetik gehiegi aldentzen.

### 2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (II) Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2022



Aurreikuspen panela 2023



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2022ko ekaina), Cereprede (2022ko maiatza), BBVA (2022ko maiatza), Laboral kutxa (2021eko abendua), Confebaskek (2021eko abendua) eta Hispalink (2022ko apirila-BEGaren aldakuntza).

Oraingoz, 2023rako ezagutarazi diren aurreikuspenak oso gutxi dira eta %3tik beherako aldakuntza marjina estuan kokatu dira. Abagune ekonomikoa zalantzakoa eta aldakorra da, eta, beraz, zuzenketak etengabe egiten dira. Ezkortasun batek, agian gehiegizkoa, aurreikuspen horiek bustitzen ditu, eta gero eta zifra apalagoetan kokatzen ditu. Zuhurtziak gomendatzen du erne egotea datuen bilakaerarekin, batez ere inflazioarekin, eta agertoki makroekonomiko eguneratua eskaintzea aldagai ekonomikoetan egonkortasun handiagoa ikusten denean.